

ITSASU ITXASSOU

1. Herri aldizkaria
Bulletin municipal n°1
Urtarrila 2021 Janvier

Urte berri on
Bonne année 2021



Crédit photo André Klein

zorionak

Herriko Etxeak, urte berri on !

Zernahi izanik geroa, Herritar bakotxari osasun betea ! elgarrekin aintzinatezari bai, esperantzari begiak argi eta elkartasunari besoak zabal !

Quoi que nous réserve l'avenir, meilleurs vœux de santé à chacun, envie collective à nous mobiliser ensemble pour nourrir l'espoir, pour entretenir une dynamique sociale et pour développer la solidarité.

A tous, meilleurs vœux de la Commune !

EDITO

Auzapezaren hitza



2020ko urtea gogoetan geldituko da. Birus batek nahasi du munduaren ibilbidea. Mehatxatu du jenden osagarria eta batzuetan kalteak hedatu ditu gure etxetaraino. Gaitzetik zaintzeko neurriek ere bortizki inharrosi dituzte gure bizimoldeak, behartzen gaituzte-la batzu bestetarik hainbat urrun egoiterat.

Hemengo bezala denetako ekonomiak kaltetuak dira. Jatetxe eta ostatuek berena jasaiten dute. Beste lanbide askok ondorio txarrak eta neke gorriak ikusten dituzte. Atsedetik gabe zain egon beharko dugu andeatuko diren egoera sozialei buru egiteko.

Osasun krisialdi hunek, bere ondorio guzien artetik, geldi geldian ezarri du elkarteen oldar guzia. Ez zen hainbesteren beharrik erakusteko zoin baliosa zen elkarte bizia herritarren arteko zozial lokarri erakarle bezala.

Kultur, kirol ala ausagailu ekintza guzien trabatzeak kalterako gehitzen dira ateraldi, elgar ikuste eta elgarretaratze debekuei. Arras baitezpadakoa agertzen da herritar guzientzat bizi sozialaren beharra.

Herriko Etxeak hirigintza planaren barne bilkurak berritz abiatzen dituen orduan, gure herriaren geroa da jokoan. Bizi zoziala indartuko duten hautuak dira agertzen gogoetetan, elkar bizitza lagundu

durenak, eta Itsasuren nortasuna sustatuko dutenak.

Ederki garatu da Itsasu azken hamarkadetan. Denak ados dira onartzeko eraikuntzaren eta bizitzaileen emendatzeak neurritz atxiki behar direla. Herri egoiteak berak hori behartzen du : lurralde bat nun herritarrek elgar ikusten eta elgar ezagutzen duten, eremu bat nun bizia hurbilez hurbil antolatzen ahal den, gune bat nun batzu bestek elgarrekin bizi dituzten kultur eta besta giroak.

Herriko plaza, bere pilota leku eta karrika, gelditzen da itsasuarrentzat herriko bihotza. Zer liteke sendoagorik herri nortasun bat indartzeko herriko plaza biziaraztea baino ? Gure hemengo egoeran,

berpizte ausarta beharko da, plaza karrikan egoiliarak zinez emendatuz eta ekonomia sustatuz. Herri erdi proiektu bizkor bat, herritarren bizi eta lokarri gune. Esku izaiteko parada ederrik badauka Itsasuk Lapurdi eta barnekaldearen juntan, lehiatuz geroz borondatez herrigintzaren kudeatzen ontasun partekatua bidetarik.

Herriko plaza berritz nortasun ardatz bihurtzea jin liteke herriko auzo bakotxak merezi duen eskerrari gehitzerat, beheko lurraldetan mendiko eremuetan bezala. Auzo bakotxak bere ezauzgarriekin osatzen du Itsasu herriaren izaitea.

Aupa 2021 ! Itsasuk Kontseiluaren ganik, herritar bakotxari, urte berri hau osasuntsua, elkartasunezkoa eta itzaropentsua. Laster elgarrekin egoiteko gogoz.

L'année 2020 restera dans les mémoires. Un virus aura grippé la marche du monde. Il aura menacé la santé humaine et affecté parfois jusque dans nos familles. Les mesures de prévention auront aussi gravement bousculé nos quotidiens, imposant en règle de vie, la distanciation sociale.

L'économie globale et locale sont mises à mal. Restauration et hébergements ont été lourdement impactés. Bien d'autres secteurs subissent les effets néfastes ou désastreux sur l'emploi. Il nous faudra rester en alerte permanente pour réagir à la dégradation des situations humaines et sociales.

Cette crise sanitaire aux multiples conséquences, aura également immobilisé la dynamique associative. Il n'en fallait pas tant pour démontrer l'importance de la vie associative comme puissant vecteur de lien social. La paralysie des activités culturelles, sportives ou récréatives est aggravée par les limitations de sorties, de rencontres et de rassemblements. Le besoin de vie sociale pour tous les habitants n'apparaît que plus essentiel.

A l'heure où la mairie reprend les travaux concernant le PLU, c'est le devenir de notre village qui est en jeu. Les réflexions portent sur les choix qui renforceront la vie sociale, qui favoriseront le vivre ensemble, et qui conforteront l'identité d'Itsasu.

Itsasu s'est généreusement développé ces dernières décennies. Tout le monde s'accorde à convenir qu'il faut désormais contenir ce développement démographique et urbanistique. Il y va de la notion même de village : territoire sur lequel les habitants se croisent et se connaissent, périmètre sur lequel s'organise au plus près la vie quotidienne, espace où se partagent les animations culturelles et festives.

Le bourg historique, avec son fronton et sa rue, est resté pour les itsasuar le cœur de village. Quoi de plus évident qu'un centre bourg dynamique pour affirmer une identité de village ? Dans notre situation, cela imposera d'y regagner en vitalité, de redonner de la densité à l'habitat et du tonus à l'économie. Un vrai projet de centre bourg qui favoriserait la vie sociale des itsasuar au quotidien. Les atouts sont nombreux sur notre territoire pourvu qu'il y ait la volonté de reprendre la main sur l'aménagement du village dans le sens d'un intérêt collectif partagé.

Cet objectif de centralité retrouvée viendrait se rajouter à la nécessité de la prise en compte des quartiers du village, aussi bien dans les côtes d'en bas comme sur les flancs de nos montagnes. Chaque quartier compte avec ses caractéristiques et participe de l'identité d'Itsasu.

Vive 2021 ! A chacune et à chacun, au nom de l'ensemble du conseil municipal, meilleurs vœux de santé, de solidarité, d'espoir. Au plaisir de nous rencontrer et de nous retrouver.

Mizel HIRIBARREN

2021garren urteko lehen herri aldizkari hunen bidez nahi dauzkizuegu ekarri Itsasuko zenbait berri eta agertu nola antolatzen ditugun Herriko Etxea eta bere zerbitzuak.

Kausituko dituzue Herriko Etxeko batzordetako ala Kontseiluko eztabaida zenbaiten oihartzunak, Itsasuri buruzko hainbat berri, eta begirada berezia herriko eskolei buruz. Oroitu behar da Herriko Kontseilu bilduma guziak irakurgai gelditzen direla Herriko Etxe kanpoko aldean, agertzen direla « Itsasu.fr » webgunean eta Intra Muros aplikazionean. Molde hortan bakotxak ikus dezake hautetsien jarrera 5G edo PLH bizitegien plangintzari buruz.

Urte hastapen huntako alean, ez dugu artikulurik eskatu Itsasuko elkarte bakotxari, ezpada ekintza bereziak izan dituen elkarte pare bati. Iduritu zaigu egokiago zela igurikatzea elkarte bizia berritz abia zadin bere ohizko dinamikarekin. Beraz, ondoko herri aldizkarietan beren agerpenen lekua eskainiko zaie berritz herriko elkarteri. Informazio komunkazione batzordeak kudeatzen du herri aldizkari hau, eta urtean lau aldiz agertzeko asmoa dugu.

Bestalde, mila jendez gorako herrietan, legeak behartzen gaitu Herriko Kontseiluko talde politiko guziei leku berezi baten uzterat. « Elgarrekin Segi Aintzina » eta « Itsasu Elgarrekin » taldeen ordezkarien lerroak ere kausituko dituzue aldizkari huntan.

Azkenik, herri aldizkari hunen maketari buruz, erabaki dugu Itsasuko herriko etxean ginituen esku eta tresnekin egi-tea lan guzia. Lehiatuko gira ondoko aldietan aldizkariaren itxura hobetzerat etxeko etxeko, ibili gabe fantesiazko paper gastuetan diru xahutzen.

Ce premier bulletin municipal de l'année 2021 souhaite vous apporter quelques nouvelles du village et rendre compte du fonctionnement de sa municipalité et de ses services (voir la présentation des agents municipaux en page 23).

Vous y trouverez les échos des débats au sein de votre mairie qu'ils soient portés en commissions ou en conseil municipal, de nombreuses informations qui concernent la vie du village, et trois « focus » sur la vie de nos écoles.

Pour mémoire, nous signalons que les comptes rendus des conseils municipaux sont affichés à l'extérieur de la Mairie et relayés tant sur le site itxassou.fr que sur l'application « Intra Muros » donnant à connaître dans le détail les délibérations adoptées. Ainsi et pour exemple chacun prendra connaissance du positionnement des élus sur les thématiques telles que la 5G ou le Projet Local d'Habitat (PLH).

Dans ce bulletin de début d'année, nous n'avons pas sollicité les contributions des diverses associations du village, si ce n'est deux d'entre elles qui ont connu une activité particulière. Il nous apparaissait plus opportun, dans le contexte actuel, d'attendre que les dynamiques associatives repartent. Nous entendons donc bien dans les publications à venir (la commission communale « information-communication » a prévu une publication trimestrielle) accorder une place plus large aux initiatives et aux projets des associations.

Par ailleurs la loi impose désormais un espace d'expression pour tous les groupes « politiques » représentés sur la municipalité, dès lors que la population communale dépasse le millier d'habitants. Les itsasuar trouveront donc également dans ces pages les expressions de « Elgarrekin Segi Aintzina » et « Itsasu Elgarrekin »

Enfin et s'agissant de la maquette de ce numéro nous avons, pour des raisons pratiques, décidé de mettre en page cette publication en interne avec les outils et les personnels dont nous disposons en mairie. Nous nous engageons à améliorer pour les bulletins à venir les qualités techniques et esthétiques de mise en forme, sans toutefois vouloir produire et financer des documents sur papier glacé.

Oroitzekoa

Beste informazioe tresna batzu badira lehenagotik bidean, Itsasu.fr webgunea edo Intra Muros aplikazionea bezala, nor berak bere telefonan telekarga dezakena. Erabaki edo gertatu bezain laster, aurki dezakezue Itsasuko berri asko Intra Muros edo Webgunean.

Rappel

D'autres outils d'information sont déjà en service, comme le site « **itxassou.fr** » ou l'application « **intra muros** » que chaque détenteur de téléphone mobile peut aisément télécharger. Les principaux éléments d'actualité de la vie municipale s'y trouvent relayés en temps et heures, et chacun peut les consulter.



La Révision du Plan Local d'Urbanisme (PLU)

Le PLU est élaboré au niveau communal pour organiser, réglementer et orienter les initiatives en matière d'aménagement du territoire et d'urbanisme pour les 15 à 20 ans à venir. Le PLU est une formidable opportunité d'évaluer la situation de la commune et de dégager une vision pour l'avenir plus cohérente, plus solidaire, et plus respectueuse de l'environnement.

La révision du PLU a été reprise par le nouveau conseil municipal dès la fin de l'été 2020. Le rythme de travail est soutenu au sein de la commission urbanisme, avec la participation de l'ensemble des sensibilités de la municipalité. **Une présentation publique pourrait être envisagée au printemps.** Le premier document d'orientation devrait être prêt courant premier semestre 2021.

Le PLU, ça se fait comment ?

Trois grandes étapes de travail sont nécessaires :

- **Le diagnostic territorial** : il permet d'établir un état des lieux complet de la commune (démographie, logements, utilisation de l'espace, économie, agriculture et équipements). Il permet de dégager les points forts de la commune mais surtout les voies d'améliorations.

A Itsasu, cette première étape est quasiment terminée. Restent à actualiser les données concernant l'activité agricole et économique, à faire un point précis sur le logement (nouvelles constructions et surfaces déjà consommées).

- L'analyse du diagnostic oriente le projet communal pour les années à venir, à savoir le **Projet d'Aménagement et Développement Durables (PADD)** pour les initiés). C'est un document fondamental, concis dans sa forme, qui définit les axes fondamentaux de l'aménagement et de l'urbanisme pour l'ensemble du territoire communal à moyen et long terme.

- La dernière étape détermine **le zonage, le règlement et les Orientations d'Aménagement et de Programmation (OAP)**. L'ensemble de ces pièces doit être établi en cohérence avec le PADD.

Le zonage ou plan graphique délimite les zones urbaines U, les zones à urbaniser AU, les zones agricoles A et les zones naturelles et forestières N,

Le règlement écrit fixe les règles applicables en termes d'autorisations au sein de chaque zone,

Les **OAP** sont des dispositifs d'aménagement sectoriels permettant de définir plus finement des enjeux sur des périmètres identifiés au plan (habitat, infrastructures, déplacement, économie...).

Des réglementations supérieures qui s'imposent à la commune...

Les documents d'urbanisme locaux comme les PLU doivent respecter des règles de rang supérieur en particulier le **SCoT** de l'agglomération de Bayonne et de Sud Landes ou le **Plan Local de l'Habitat**.

De nombreuses lois sont apparues depuis 20 ans et contraignent aujourd'hui les projets d'urbanisme en particulier dans notre territoire agricole et en zone montagne (ex : la loi Montagne, la loi Grenelle etc...)

Qui fait tout le « boulot », et qui décide ?

Le Conseil municipal et sa commission urbanisme sont à la baguette et conduisent l'élaboration du document d'urbanisme. Néanmoins, ils doivent agir en concertation avec 4 types d'acteurs :

- les experts de la planification urbaine et de l'urbanisme réglementaire. Si les élus ont leur vision du territoire, le cabinet d'étude (pour Itsasu, le service Territoires et Urbanisme de l'APGL 64) a son expertise et sa connaissance du processus, c'est de cette complémentarité qu'éclot un PLU cohérent.

- Les personnes publiques associées : L'Etat et en particulier la Direction Départementale des Territoires et de la Mer (la DDTM), avec sa lecture de contraintes imposées, ainsi que diverses instances consulaires, régionales, départementales et intercommunales sont associés aux processus d'élaboration du PLU pour avancer en cohérence.

- Les habitants d'Itsasu, les associations locales et autres personnes intéressées, peuvent participer à la démarche de concertation définie dans la délibération de prescription de l'étude votée lors du conseil municipal d'Itxassou, du 18 juin 2012. Il a été ainsi acté que **durant toute la durée de la révision, une information sera assurée au travers du bulletin municipal**, indiquant les grandes étapes de la réalisation du document et précisant son état d'avancement ; des documents d'analyses de la situation communale seront mis à disposition du public à la mairie, accompagnés d'un registre pour exprimer ses observations.

A l'issue du débat municipal, les orientations du PADD et une synthèse du diagnostic seront présentées lors d'une réunion publique et seront ensuite maintenues à disposition du public jusqu'à l'arrêt du projet de PLU.

L'acteur incontournable est la CAPB à laquelle la compétence urbanisme a été transférée. C'est ainsi, légalement et **en conseil communautaire, que le PADD sera débattu puis que le PLU sera arrêté et approuvé.**

La CAPB fait loi mais l'initiative et le réel débat demeurent au sein de la municipalité et de la commune.

HIRIGINTZA / URBANISME / PLU

Hirigintza Planaren berrikustea

Hirigintza Plana herri mailan lantzen da ondoko 15 edo 20 urteetako lurralde eta urbanismo antolaketa, arautzeko eta norabideak finkatzeko. Parada baliosa izaten da Hirigintzaren Plan horren lantzea begirada sarkor bat emateko herriaren egoerari eta etorkizunari ikuspegi sendo bat ausnartzeko, koherenteagoa, elkartasunezkoa eta ingurumena zaintzen duena.

Herriko Etxe berriak 2020ko uda ondarrean abiatu du berritz Hirigintza Planaren lantzea. Gogoz lotu gira lan sail huni urbanismoko batzordean, Herriko Kontseiluko alde guziak partaide zirela. Aurkezpen publiko bat eskaini behar ginuke 2021eko primaderan. Lehen norabide ituna erabaki behar ginuke 2021eko uda aintzin.

Nola lantzen da Hirigintza Plana ?

Badira hiru haitada beharrezkoak :

- Lurraldearen diagnostika : aztertzen du herri osoaren egoera, administrazioa eta geografia aldetik, jendetza-aren hazkundera, bizitegiaren gora behera, baserri eta hiritar-tu guneen bilakaera, ekonomiaren dinamika, laborantzaren kinka eta zerbitzu publikoen eskaintza. Agertzen ditu herriaren indarguneak eta hobetu beharrak. Itsasukotz, lehen haitada hori kasik bururatua da. Gelditzen dira eguneratzeko ekonomia eta laborantzako emaitzak, baizik eta bizitegiaren egoera zehazteko (zenbat eraikuntza eta zenbat lur jadanik baliatuak)

- Diagnostika aztertze lan hortarik ateratzen da ondoko urteetan herriak muntatuko duen herri proiektua, eta PADD deitzen zaio. (Antolaketa eta garapen iraunkorreko herri proiektua). Oinarrizko dokumento bat da, berez laborzki idatzia, eta mugatzen dituenak herri antolakuntza eta hirigintzaren norabide nagusiak, epe motz eta ertai-nean.

- Azken haitadak erabakitzen ditu herrian eremu bakoitxaren baliapenak, araudiak eta antolaketa bereziak (OAP). Dokumentu hauetarik bakoitza egokia izan behar da PADD arekin.

Araudiek (marrazkiz ala idatziz), PADD eta OAPrekin egokituz, mugatzen dituzte eraikitze guneak U, berantago eraikigarri ekarriko diren guneak AU, laborantzako guneak A, natura eta oihan guneak N. Araudi itunak finkatzen ditu ere eraikitze lege zehatzak.

OAP-ek eraikuntzari ideki nahi diren eremutan agertu behar dute antolakuntza xedea, bizitegi, garraio eta mogikortasunak zehaztuz.

Herriek kondutan hartu behar dituzten legeak

Hirigintza Plana berrikusteko orduan, Itsasu bezalako herriak behartuak dira Ipar Euskal Herri guzian hartzen duten SCOT eta PLH lurralde eta bizitegi politika nagusien araudiak betetzerat.

Bestalde, Frantzia mailako gero gehiago legeren araudiak ere bete behar ditu herri batetako Hirigintza Planak : Mendi legea, grenelle legea, Alur legea, SRU legea, UH legea....

Nork egiten du lana eta nork erabakitzen du ?

Herriko kontseilua eta urbanismo batzordea dira ku-deatzaile nagusiak. Haatik behar dute lau eragile mota-rekin aintzintatu :

- Hirigintzan adituak. Hautetsiek ekartzen dute bere herriaren ikuspegia, eta teknikolari hauek laguntzen dute beren jakitate teknikoarekin. Itsasukotz APGL 64 eko adituak dira teknikolariak. Hautetsi eta adituen elkar-lanetik sortzen da Hirigintza Plana.

- Eragile publikoak : Estatu eta bereziki departamen-duan duen DDTM ordezkariak, gorago aipatu legedia guzian besapean. Estatuaren aldean beste hainbat eragile Hirigintza Planaren aintzintamendua zaintzen dutenak, nork bere ikuspegitik (Eskualdea, Departamendua, Herri arteko lurraldeak..)

- Itsasuko herritarrek eta herriko elkarteek parte hartzen ahal dute 2012ko ekainaren 18an herriko Kontseiluak mugatua dituen konzertazio urratsetan. Orduetik erabakia izan da Hirigintza Planaren lantzeko denbora guzian, herri aldizkarian zabalduko dela informazioa, agertuz Hirigintza Planaren urrats nagusiak eta zehaztuz zertan den aitzintamendua. Herriko Etxean ikusten ahal da herri-ko egoera aztertzen duten dokumentoak. Erregistro li-buru bat ere zabalik geldituko da Herriko Etxean herritar-ren oharren hartzeko.

- Herriko Kontseiluan PADD norabide itun hori eztabai-datu ondoan, norabide horik eta diagnostikaren bilduma bat aurkeztuak izanen dira biltzar publikoan. PADD itun hori eta erregistro liburua herritarrentzat zabalik egonen dira Herriko Etxean Hirigintza Plana erabakia izan arte. Azken eragilea eta ez arruntena, Hiri Elkargoa da (CAPB). Hirigintzaren gaitasuna gaurregun Hiri Elkargoaren esku da.

Ondorioz, legez, Hiri Elkargoko biltzar nagusiak du ezta-baidatzen PADD, eta *harek erabakitzen eta onartzen Hirigintza Plana.*

Hiri Elkargoak dauka lege indarra, baina proposame-naren eta eztabaidaren indarrak Herriko Etxearen esku dira.

Nicole Etxamendi, 1ère Adjointe
Chargée de l'urbanisme
Lehen axuanta, Hirigintza arduradun



CAPB / Euskal Hirigune Elkargoa



Hiri Elkargoa sortu zen 2017 urtarrilaren 1ean, 10 Herri arteko lurraldeak lurralde polo bilakatzen zirela. Ordurarte gaitasun frango Herri, Herriarte edo Estatuaren gain ziren. Urbanismo gai teknikoa adibidez : 2017 arte, etxegintzarako baimenak Estatuak (DDTMak) zituen ikertzen, gaur egun Hiri Elkargoko urbanismo teknikalariek dituztelarik ikertzen. Ondarkinen kudeaketa Errobi Sivom ak lehen eta Bil ta Garbi edo Hiri Elkargoko beste zerbitzuek orain. Haurtzaindegiak, kultura, kiroldegiak, ur zikinen kudeaketa, industria eremuak eta beste gaitasun asko Hiri Elkargoaren esku dira gaurregun.

Behar ote dugu gogoan erabili gaitasun guziak Hiri Elkargoaren esku joan direla Herrien ardura guzia deuseztatuz ? Nor berak entzunen du han edo hemen Herrien esku gelditzen direla bakarrik eskolak eta bideak. Hiri Elkargo boteretsuegiak jan ote du auzapezen eta Herriko etxeen indar guzia ?

Egia da Hiri Elkargo gazteak kontutan hartu behar duela 158 Herrien nahitaezko dorpetasuna, baita kontutan hartu norabide estrategikoak, hautu eta erabaki beharrak arlo guzietan, gelditzen direla gehienik buruzagitzan hertsian, lehendakari, lehendakari orde eta delegatuen gain. Nahiz legez Herri Elkargoaren biltzar nagusia da erabakitzaile bere 158 ordezkariekin. Elkargoko batzar orokorrak behar du zohituz joan eta arizanaren bertutez zinezko eztabaida, kontzertazio eta oposizio gune bilakatu.

Helburu guzia da hurbiltasunik ez galtzea boterearen konzentratze handiegiarekin. 2020 ko uztailean baietsi zen gobernantza itun berriak asmo nagusia zuen lurralde polo bakoxtari leku gehiago uztea, lurralde polo bakoxteko ordezkaria Herri Elkargoko buruzagitzan sartuz (Peio Etxeleku Errobi lurralde poloarentzat). Lurralde Polo bakoxtak bitartegune eta lokarri izan behar du Hiri Elkargoaren eta kide dituen Herri guzien artean. Molde hortan, lurralde batzorde bakoxta bada bide bat gehiago lurraldearen eta herritarren eskakizunen adierazteko, lurraldearen egoera eta jokoan denaren agertzeko. Lurralde polo bakoxtak eskatzen ahalko du ikertze lan berezia Hiri Elkargoko zerbitzu teknikoei, agerian ezartzeko zoin diren proeiktu egituratzaileak, aztertuz zoin dituzten egingarritasun tekniko, juridiko eta finantziarioak... Ohartarazi behar halaere dirustatze berezirik ez dela aurreztu boterearen dezentralizatze hori laguntzeko.

Orohar, Herrietako hautetsien gain gelditzen da bidearen urratzea eta politika publikoen norabidea Euskal Herri barnekaldearen onetan zuzentzea Hiri Elkargoan berean.

La Communauté d'Agglomération Pays Basque (CAPB) est née le 1er janvier 2017 de la fusion des 10 intercommunalités du territoire devenues des pôles territoriaux.

Jusqu'à ce jour, de nombreuses compétences relevaient de la commune, de la communauté des communes ou de l'Etat. On prendra pour exemple l'« Urbanisme » et notamment la planification dont la compétence relève désormais de la CAPB. S'agissant de l'instruction « technique » des autorisations d'urbanisme (permis de construire, CU, ...), dans le cas d'Ixassou, celle-ci relevait des services de l'Etat (DDTM) et aujourd'hui les demandes sont traitées par les services instructeurs de la CAPB.

La gestion des déchets était assurée par le SIVOM Errobi et aujourd'hui incombe aux services de la CAPB associés au syndicat Bil ta Garbi. La petite enfance, la culture, les équipements sportifs, l'assainissement, les zones économiques et bien d'autres compétences sont gérés aujourd'hui depuis la communauté d'agglomération.

Doit-on pour autant considérer que l'ensemble des décisions a été délégué à la Communauté d'agglomération Pays et Basque dépossédant la municipalité de son libre arbitre ? Chacun entendra ici et là qu'il ne reste que les écoles et les voiries à charge des communes. La toute-puissante communauté d'agglomération n'amenuiserait-elle pas le pouvoir des maires ?

Il est vrai que la toute jeune CAPB doit composer avec la lourdeur d'un ensemble à 158 communes et des orientations stratégiques, des arbitrages et des décisions qui dans tous

les domaines, reposent essentiellement sur un conseil exécutif restreint, composé d'un président, de vice-présidents et de délégués.

Néanmoins, c'est bien le conseil communautaire et ses 158 délégués communautaires qui délibèrent. Le conseil communautaire doit gagner en maturité et avec l'expérience devenir un véritable lieu de débat, de concertation et/ou d'opposition.

Tout l'enjeu est de ne pas perdre en proximité à cause d'une trop grande concentration du pouvoir. Un nouveau pacte de gouvernance entériné en juillet 2020 a pour objectif de redonner une place à chaque commission territoriale avec un élu référent qui intègre le conseil exécutif (Peio Etxeleku pour le pôle territorial Errobi). Chaque commission territoriale a un rôle privilégié de relais et d'interface entre la Communauté d'Agglomération Pays Basque et ses communes membres. A ce titre, chaque commission est un canal complémentaire de remontée des attentes des habitants et du territoire, de diagnostic et d'identification des enjeux de ce dernier. Chaque pôle pourra disposer d'une expertise auprès de services techniques de la CAPB, pour pouvoir faire émerger des projets structurants et vérifier leur faisabilité technique, juridique, financière... Il faudra néanmoins noter qu'aucune enveloppe budgétaire à proprement parler n'accompagne cette tentative de décentralisation du pouvoir.

L'initiative des élus à l'échelle de la commune doit faire la différence et infléchir les orientations des politiques publiques à l'avantage de nos territoires ruraux très représentés au sein de la CAPB.

L'Ecole publique



Eskola publikoan, aurtengo kopuruak iazkoen aldean egonkorak dira, 66 ikaslerekin 3,5 ikastaldetan banatuak (sartzean euskarazko postu erdi bat sortua izan baita)

Aldaketa batzuk izan dira irakasleen taldean :

Frantsesez :

- VAGNER anderea heldu berriak, ama eskolakoak eta CP-CE1-CE2 mailakoak frantsesezko denboran kudeatzen ditu;

- VACCARI jaunak zuzendaritzaz, CE2-CM1-CM2 mailakoez eta lehen mailako elebakarrez arduratzen da;

Euskarari dagokionez,

- LADEVESE jauna ama eskolakoak eta CP-CE1 mailakoez arduratzen da, eta BAGIEU andereak astearteetan ordezkatzeko du.

- PARMENTIER anderea, heldu berria, CE2-CM1-CM2 mailakoez arduratzen da.

Aurtengo eskolako proiektua antzerkia da. Parte hartzaile profesional bat etorri beharko liteke (agian!) ikasgela bakotxean aritzeko. Helburua da ikasleek ikastea beren emozioak adierazten, publikoan mintzatzeko eta elkarrekin lan egiten, ekainaren 18an ikuskizun bat aurkezteko (posible baldin bada, bistan da). Proiektu hori posible izanen da APE elkartearen ekintzei esker, APE gurasoak eskertzen ditugu !

Bai ama eskolako eta bai lehen mailako ikasleek historiaurreari buruzko ateraldian parte hartu dute: egun hartan lehen mailako ikasleek Otsozelaiko harpea bisitatu dute, eta ikasle guzietan "historiaurreko" oroigarri bedera ekarri dute, beren esku ttipiz egina.

Kirol jarduerari dagokionez, CP-CE1-CE2 mailakoak Uzta-ritzeko igerilekura joan ahal izan dira igeriketan aritzeko, eta CE2-CM1-CM2 mailakoak golfean trebatzen dira, urtearen bukaeran egiazko golf zelai batera joateko helburuarekin (data eta lekua finkatzekoak).

Oraingo egoera pixka bat goibel izanik ere, gure ikasle "maskatuek" lortzen dute lan egiten, aitzinatzen eta lortzen, ahal bezain ongi eginez !

Concernant l'école publique, les effectifs sont stables par rapport à l'an dernier c'est à dire 66 élèves, répartis en 3 classes (4 classes sur le temps unilingue / bilingue basque car un demi-poste basque a été créé à la rentrée).

L'équipe enseignante a été en partie modifiée :

- Mme VAGNER, nouvelle arrivante, gère les maternelles en français ainsi que les CP-CE1-CE2.

- M.VACCARI est le directeur de l'école et s'occupe des CE2-CM1-CM2 et des élémentaires unilingues.

Concernant la langue basque,

- M. LADEVESE s'occupe des maternelles en langue basque et des CP-CE1 . Il est remplacé le mardi par Mme BAGIEU.

- Mme PARMENTIER, nouvelle arrivante, s'occupe des CE2-CM1-CM2.

Cette année, le projet de l'école est tourné vers la pratique théâtrale. Un intervenant professionnel devrait (on l'espère ... !) intervenir auprès de chaque classe. L'objectif est que les élèves apprennent à exprimer leurs émotions, à s'exprimer en public, et à travailler ensemble en vue d'une représentation le vendredi 18 juin (si possible bien sûr). Ce projet est rendu possible grâce aux actions de l'Association des Parents d' Élèves. Nous les en remercions !

Les élèves de la maternelle et de l'élémentaire ont pu participer à une sortie sur le thème de la Préhistoire : ce jour-là, les classes de l'élémentaire ont visité les grottes d' Oxocelhaya et l'ensemble des élèves a ramené un souvenir « préhistorique » confectionné par leurs petites mains.

En ce qui concerne les activités sportives, les élèves de CP-CE1-CE2 ont pu aller à la piscine d' Ustaritz afin de pratiquer la natation et les élèves de CE2-CM1-CM2 s'entraînent au golf dans le but d'aller, en fin d'année, sur un vrai golf (date et lieu à définir). Malgré un contexte actuel peu réjouissant pour tous, les élèves « masqués » réussissent à travailler, à progresser et à s'épanouir en faisant du mieux que possible !

L'Ecole St Joseph

Aurten San Josep eskolan 92 ikasle dira ttipien mailatik CM2 arte, 5 irakasle, OGEC-eko 2 langile eta AESH bat. Tipi eta arteko ikasleak euskarazko murgiltze sisteman dira eta gero elebidun irakaskuntzan segitzen dute CM2 arte. Eskolako taldea, duela zenbait urte iraunkorra dela, eta nahiz eta garaia zaila den, proiektu ainitz ditugu.

Gure eskolako proiektuak « Zein planeta utziko dugu gure haurreri ? Zer haur utziko dugu planetari ? » ekintza eta proiektu ainitzetara eramanen gaitu. Jadanik egiten dugunaz kanpo (pilen errekeratzea, hondarkinen bereizketa, ura eta paperaren erabiltzeari eta xahutzeari sentsibilizatzea),

Canopia eremuan bisita bat egitea pentsatzen dugu baita ere ekintza batzuk egitea herriari idekitzeko eta gure go-goetak partekatzeko; adibidez deneri idekia izanen den liburu kutxa baten instalatzea.

Irailetik goiti, gure eskolak « eco-ecole » programan izena eman du, « eco-ecole » taldeak proposatzen dituen tresnak eta sostenguaz baliatzeko. Eta zendako ez label bat erdietsi, gure proiektuen bururapenaren ezagutza litzatekeena.

L'école St Joseph compte cette année 92 élèves de la PS au CM2, 5 enseignantes, 2 personnels Ogec et une AESH. Les élèves sont en immersion en langue basque en PS et MS et suivent ensuite un enseignement bilingue jusqu'en CM2. L'équipe, stable depuis quelques années, et les projets, malgré la période compliquée, toujours nombreux.

Notre projet d'école actuel « Quelle planète laisserons nous à nos enfants ? Quels enfants laisserons nous à la planète? » va nous conduire à mener plusieurs actions et réflexions.

Hormis ce qui est déjà en place en interne (tri sélectif, récupération de piles usagées, sensibilisation à l'utilisation et gaspillage de l'eau et de papier), nous envisageons une visite du site Canopia mais aussi des actions qui nous permettront de nous ouvrir sur le village et de partager nos réflexions comme l'ins-

tallation d'une boîte à livres ouverte à tous.

Depuis septembre notre école est inscrite au programme « eco-ecole » afin d'avoir accès aux outils et à l'accompagnement proposé par l'équipe d'eco-ecole. Et, pourquoi pas, obtenir le label, ce qui serait une reconnaissance de l'aboutissement de nos projets. Tous ces projets ne seraient pas possibles sans la participation de l'Apel dont tous les membres sont restés mobilisés malgré les annulations des manifestations principales comme le marché aux plantes en mai ou le vide poussette en novembre.

Ce sont les recettes de ces événements qui permettent de financer une partie des sorties scolaires comme le voyage

Proiektu guzi horiek ezingo ziren burutu APEL-aren parte hartzea gabe, APEL-ako kideak mobilizatuak egon dira nahiz eta urteko gertakari garrantzitsuenak (maiatzeko landare merkatua edo azaroko sehaska hustea) anulatuak izan diren.

Gertakari horien diru sartzeek dituzte permititzen gure eskolako ateraldiak : urte bukaerako bidaia, ama eskolako ateraldiak, CM2-koen eski egonaldia edo material pedagogikoa erostea.

APEL-ak eta eskolak eskertzen dituzte gertakari horietan parte hartzen duten itsasuar guziak eta herriko beste elkarteak, Itsasuarrak eta Les Vieux Machins, Atharri, Gaztetxea, karpak eta materiala prestatzen bait dizkigute.

Espero dugu egoera hobetuko dela eta aurten kopuru handian gertakari ezberdinetan elkartuko girela.



découverte, les sorties des maternelles, le séjour au ski des CM ou encore l'achat de matériel pédagogique.

L'Apel et l'école remercient vivement tous les itsasuars qui répondent présents durant les manifestations et également les autres associations comme Itsasuarrak et les vieux machins qui leur permettent d'utiliser Atharri, Gaztetxea, les chapiteaux ou du matériel.

Nous espérons que la situation nous permettra de nous retrouver nombreux cette année lors de ces différentes manifestations.



Arrokagarai ikastola

Aurkezpen orokorra

Duela 10 urte sortu zen Arrokagarai ikastola. Hezkunde Nazionalarekin kontratupean den eskola bat da eta Seaskaren partaide dena. Arrokagarai ikastolako gurasoak elkarteko kide dira eta beraiek dute ikastolaren antolaketa kudeatzen, elkarteko bizi aktiboan parte hartuz eta hilabetero kotisazioa ordainduz.

Murgiltze Sistema : Euskara da ikastolako mintzaira : gela barnaz gain, aire-hartzeek, ateraldiek, jarduerak eta jantegiak ere hein bereko garrantzia dute, haurri ingurumen anitza eskaintzen baitiogu euskaraz loratzeko.

Ikastolan, baktzak bere erritmoan aintzintzen da, euskaraz plazer hartuz ikas daitezkelako, elgar lagunduz, eta batak bestearekin trukatu.

2020-2021 ikasturtean, 90 ikasle dira Itsasu, Ezpeleta, Heleta, Luhoso eta Makeatik jina. Kopuruak fite emendatu dira eta eraikuntza berria izanik ere, ttipiegi agertzen da araberan. Horitarako Algekoak plantan ezarri berri ditugu Herriko Etxea eta Elkargoaren laguntzarekin, eta ikastolaren haunditze proiektua aztertzen ari gara.

Proiektu pedagogikoa

2020 urtea, denentzat bezala garai berezia izan da Covid eritasunarekin eta martxoko konfinamendutik landa haur guzietan beren lagunak eta erakasleak plazerrekin berriz atxeman dituzte.

2020-2021 ikasturtean, ikastolako proiektua kanpoko eremuan baratze edo natura sartzeari buruz pentsatua dugu.

Aurtengo gaiak lurra, ura, intsektuak eta landareak ditugu.

Gai baktzak gure kanpoko eremua hobetzeko balio izanen du, naturan atxemaiten ahal diren sistema guzietan elgarri lotuz.

Haurrek, haien ideia eta ametsetatik abiatuz, planoak marraztuko dituzte eta eremua moldatzen ikasiko dute.

Elkarlanean, burasok ere esku kolpea emanen dute ikastolako proiektua loratzeko ; etxeko haziak berreskuratuz, zuhaitzak kimatu edo hesidura baten muntatzen lagunduz.

Arrokagarai ikastola est née il y a 10 ans. L'ikastola est une école sous contrat d'association avec l'Education Nationale. Elle est membre de la Fédération Seaska. L'association des parents d'élèves est responsable du bon fonctionnement de l'ikastola. L'inscription d'un enfant à l'ikastola implique la participation active des parents à la vie associative.

Immersion en basque : l'euskara est la langue de l'ikastola : en plus de la classe, les récréations, sorties, activités et cantine sont des temps d'une importance considérable, permettant d'offrir à l'enfant des environnements diversifiés pour son épanouissement en euskara.

Dans notre ikastola, l'enfant prend plaisir en euskara, en apprenant de l'entraide et de l'échange, tout en veillant au rythme de chacun.

Sur 2020-2021, nous comptons 90 élèves, venant d'Ixassou, Espelette, Helette, Louhossoa et Macaye. Les effectifs ont rapidement augmenté et le bâtiment pourtant récent s'avère trop petit au vu du nombre d'enfants accueillis. Aussi, avec l'aide de la Mairie et de la CAPB, des Algecos ont été installés, et parallèlement nous travaillons sur un projet d'agrandissement de l'ikastola.

Projet pédagogique

Après le confinement de mars, tous les enfants ont eu le plaisir de reprendre les cours aux côtés de leurs camarades et professeurs. Le projet d'école de l'année scolaire 2020-2021 est axé autour de la nature, le but étant de réaménager l'espace extérieur en incluant plus de verdure.

Les sujets abordés cette année seront tour à tour la terre, l'eau, les insectes et les plantes.

Chaque thème travaillé en amont servira à améliorer notre espace extérieur.

À partir de leurs idées, de leurs rêves, les enfants dessineront leurs plans et apprendront à façonner le terrain, en harmonie avec la nature qui nous entoure.

Les enfants peuvent solliciter leurs parents pour les aider à récupérer les graines des fruits, légumes et fleurs de la maison, tailler notre arbre ou nous aider à construire une clôture pour le futur jardin...

Atekgaitzeko

bidea

ENEDISen obren kari (ikusitako elementu teknikoak hemen lotuak), Atekgaitzeko bidea 3 hilabetez etsia egon da.



Ber denboran ehortziak izan dira bidenabar telefona eta fibra sareak.

Azkenean, luzaz iraun dute obrek harroak bortitzak omen zirelako. Harroka hausteko tresna berezia baliatu dute egunez egun. Obra denboran egin du aro txar frango, eta Atarriko mazelatik ere jautsi da mendiko ur asko.

Itsasuko Herriko etxea lehiatu da obra nagusi horiez balia, lurperatzeko hodi berezi batzu Latse auzoko ur zikinak eraman lezazketenak. Departamenduak eta CAPB ez zuten hodi horien ezartzeko xederik eta buxetik. Ezezko borobila ardietsi du Herriko Etxeak.

Beste egun batzuz beharko da hetsirik egon Atekgaitzeko bidea 2021ko urte hastapenean, enpresak bide guzira gudroneztatzeko denboran.

Badakigu zenbat enegu eta ibilaldi luze jasan duten Latseko eta mendiko herritarrek. Departamenduko arduradunak behin eta berriz deituak izan dira eskain dezaten merezi den ordaina. Mementoz erantzunik gabe gaude.

Route du Pas de Roland

La route du Pas-de-Roland a été fermée à la circulation 3 mois durant dans le cadre d'un chantier porté par ENEDIS (voir éléments techniques ci-dessous) et à l'occasion duquel ont également été enfouis les réseaux de téléphonie et de la fibre.

Les travaux ont été compliqués à cause de la dureté de la roche (nécessité de finir les tranchées au brise roche), des conditions climatiques difficiles de certaines périodes et de l'abondance des eaux de ruissellement....

La mairie d'Itsasu avait insisté auprès du Département et de la CAPB pour disposer dans les tranchées des canalisations qui dégageraient les eaux usées du quartier Laxia. L'assainissement n'était inscrit ni dans les projets ni dans les budgets. La revendication a reçu une fin de non-recevoir.

Les travaux d'enrobé de la chaussée imposeront de barrer la route quelques jours de plus sur le premier trimestre 2021.

Nous savons combien de désagréments et de déplacements supplémentaires auront coûté ces travaux aux habitants du Laxia et des quartiers de la montagne. Nous avons sollicité à plusieurs reprises les responsables du Département pour obtenir une compensation financière. Nulle réponse positive à ce jour.

ENEDIS-en OBRAK

Bi elektrika bide nagusi dira Itsasuko herrian :

- Kanbotik heldu den elektrika kable bat, 1050 bizitegi hornitzen dituena

- Luhusotik heldu den elektrika kable bat, 250 bizitegi hornitzen dituena

Luhusotik heldu den kablea mendi alde zabalean hedatzen da (Bordaxuria, Latse, Bordagainia, Fagola, Berandotze, Artzamendi). Kabletan arrangurak direlarik enegu larriak eta gastu gotorak izaten dira...

Elektrika hornitzea hobetzeko mendi alde hortan guzian, ENEDIS enpresak nahi izan du :

- Ataitzetarik kable berria ekarri, Latsen elgarretaritzen direla Kanbo eta Luhusotik heldu diren elektrika iturriak,

- Latsen ezarri dute armario telekomandua, eta Legordia aldean mozteko eta pizteko gailua.

TRAVAUX ENEDIS

2 lignes HTA 20000 volts alimentent la commune d'Itxassou :

- Une ligne depuis « CAMBO » dessert 40 postes de distribution publique et 1050 branchements Itsasuar

- Une ligne depuis « LOUHOSSOA » dessert 25 postes de distribution publique et 250 branchements Itsasuar

Les 25 postes alimentés par le Départ « Louhossoa » se trouvent sur une antenne, très longue, en terrain montagneux et difficile d'accès (Bordaxuria, Laxia, Bordagainia, Fagola, Berandotze et Artzamendi). Les temps de dépannage du réseau et de réalimentation des clients lors d'incidents sont conséquents. Afin de ramener une bonne qualité de desserte de l'électricité sur la zone et en cas d'incident pouvoir isoler le défaut et réalimenter facilement les clients, ENEDIS a réalisé un chantier consistant :

- au bouclage des lignes de départ « Louhossoa » et « Cambo » avec l'enfouissement de près de 2 kms de câble HTA en souterrain sur la route du Pas-de-Roland

- à l'installation d'une armoire télécommandée au Laxia et un interrupteur aérien vers Legordea

Bideak Eraikuntzak Ekipamenduak / Voirie Bâtiments Equipements



Kantinako handitze obrak

Itsasuko eskoletako jantegian obrak ederki aintzintzen ari dira eta eguberriak aintzin hegatzak ezarriak ziren pareta berrien gainean.

Jantegiaren handitzea deliberatua izana zen aintzineko kontseiluaren ganik, ikastetxetako haurren nonbreak emendatuz joan baitira urte guti barne (135 haur orotarat 2005an, 240 ikasle direlarik egunero orain).

Udaberri huntan, denak ongi joanez, jantegi barneko arrabots eztingailuak ezarriak izan behar litezke. Aldiz, jan gela berria baliagarri liteke 2021 ko iraileko eskola sartzetik harat.

Jantegian bazkaltzen dute hiru eskoletako hurrek bezala bazkari zerbitzuan lehiatzen diren herriko langileek, preziatu behar lituzkete jan gelaren eremuaren zabaltzea eta azantza mailaren jabantzea.

Travaux d'extension de la cantine

Les travaux d'extension de la cantine scolaire d'Itsasu ont bien avancé et la toiture est venue mettre hors d'eau les murs de parpaings élevés cet automne.

L'extension avait été décidée sur le mandat de la municipalité précédente, les effectifs des écoles ayant rapidement évolué ces dernières années. (Pour 135 enfants / jour en 2005, nous enregistrons désormais 240 élèves au quotidien).

Les équipements qui réduiront le niveau de bruit seront installés ce printemps dans la partie de cantine existante. Les nouveaux locaux seront livrés pour la rentrée scolaire de septembre 2021.

Les enfants de nos trois écoles qui partagent ensemble ces moments de repas quotidiens, tout comme le personnel de la Commune qui assure ce service de restauration, apprécieront certainement de gagner en confort d'espace et de diminuer en niveau de décibels.

Herriko karriken argitzea

Itsasuko herriko karriken argitzea gostatzen da urtean 17 000€ guti aski. Planetaren berotzeari buru egiteko xedearen bidetik, segitzen dugu argiontzien ordezkatzeko led anpula batzuez, elektrika gutiago erretzen dutenak.

Ber denboran ordezkatzeko ditugu argigailu azkarrak beste argigailu sistema batez, lurrari buruz argitzen dutenak eta gutitzen dutenak airetan doan argi kutsatzea.

2018ko abendoaren 27ko lege arauen bidetik, argi kutsapenen kontra joateko, ez dugu hedatuko karriketako argitze sarerik orainarte baino zabalago. Aitortu behar da gauazko karriken argitze soberakinak bioaniztasunarentzat kaltegarri direla, behargabeko erregai xahutze nasaia diren bezala.



Eclairage public

Actuellement, le budget communal consacré à l'éclairage public avoisine par an les 17000 euros. Conscients de la nécessité d'agir à l'échelle communale pour contribuer à limiter le réchauffement planétaire, nous continuons à rénover le réseau en mettant en place des matériels équipés d'ampoules Led basse consommation.

Dans le même temps, nous sommes en train de remplacer les projecteurs existants par un nouveau système d'éclairage vers le sol visant à diminuer la pollution lumineuse aérienne.

Dans l'esprit de l'arrêté contre la pollution lumineuse du 27 décembre 2018, nous n'allons pas étendre le réseau d'éclairage public au-delà du réseau existant. En effet, l'excès d'éclairage artificiel a pour conséquence la perturbation de la biodiversité et représente un gaspillage énergétique non négligeable.

Gehastoko bidea

Gune lerrakor bat bazagoen lehen patarraren kaskoan, Le-garreko lepora heldu aintzin.

Parte hori latztu dugu Durruty empresaren laguntzarekin..

Lehen hormak hasi aintzin nahi gintuen lan horiek bururatu.

Harlepoa

Harlepoko biurgunean bidea lehertu da. Autoak eta laborantxako tresnak oino pasatzen ahal dira bainan laster beharko dugu gune hori berantolatatu bide guzia lehertu aintzin. Lan denborak ilabete bat irauten ahalko du eta bidea hetsia izanen da denbora hortan.

Auzo hortato biztanleak aintzinetik abisatuak izanen dira lanak hasi aintzin.

Glissance sur route de Gehasto

La chaussée manquait d'adhérence sur un tronçon de route qui mène de Basaburu vers Gehasto, sur le dernier raidillon avant le col de Legarre. Nous avons fait « raboter » l'enrobé pour sécuriser cette partie de chaussée. Il était urgent de réaliser ces travaux avant les premières gelées hivernales.

Travaux sur virage d'Harlepoa

La chaussée est en train de s'affaisser sur le virage d'Harlepoa entre Gehasto et Ortzia. Voitures et engins agricoles peuvent encore circuler, mais il devient urgent de reprendre cette partie de chaussée, avant que la situation ne s'aggrave. Les travaux pourraient durer au moins un mois et cette route sera fermée pendant toute la période des travaux. Les habitants seront avertis avant le début du chantier.

Ekipamenduak / Equipements



La fibre optique est la technologie la plus récente permettant d'accéder à internet. Elle est en cours de déploiement sur la commune d'Ixassou et déjà de nombreux foyers sont éligibles.

Quels en sont les avantages ?

Via la fibre optique, les données sont transmises par un signal lumineux donc à la vitesse de la lumière. La connexion internet par la fibre optique fait ainsi la promesse d'un débit bien supérieur à celui offert par le cuivre téléphonique. La fibre optique devrait vous permettre de télécharger vos fichiers ou votre page web beaucoup plus rapidement. L'un des autres avantages de la fibre optique est que vous pouvez profiter avec beaucoup plus d'efficacité de la connexion à plusieurs. Cet usage simultané est possible en gardant la même qualité de connexion, quelle que soit l'activité des membres de votre foyer. Vous devriez être également rarement confronté à des baisses de signal.

Comment souscrire à une connexion internet via la fibre optique ? Tout d'abord, vérifiez votre éligibilité depuis votre domicile, dirigez-vous sur le site www.lafibre64.fr, dans l'onglet *Le chantier en direct*, vous pouvez accéder à la carte prévisionnelle. En y indiquant votre adresse ou à défaut en recherchant votre logement sur le plan, un point apparaîtra sur votre domicile, s'il est vert, votre logement est raccordé. Cliquez sur ce point vert et vérifiez que l'adresse indiquée correspond bien à votre logement. Si tel est le cas, rapprochez-vous de l'opérateur de votre choix pour souscrire à un abonnement internet-fibre. Ils s'occuperont du reste.

Si votre logement n'est pas associé à un point vert ou s'il y a un problème d'adressage, rendez-vous à la mairie, nous nous occupons de rédiger un courrier spécifique à l'adresse du responsable SFR du déploiement du réseau qui étudie chaque dossier individuellement.

La mairie sera également à tout moment disponible pour vérifier votre éligibilité à la fibre à votre place et pour vous renseigner.

Zuntz optikoa edo fibra interneten sartzeko teknika berrienetarik da. Zabaltzen ari da zuntz optikoaren sarea Itsasun eta herritar asko eskuratzeko moldean litezke.

Zoin dira abantailak ? Zuntz optikoari esker, argi izpiaren bidez garraiatzen dira mezuak, beraz argiaren ziztuan. Fibra bidezko internet konektioa harizko kobrea baino ainitzez lasterrago doa. Web dokumentuen telekargatzea ainitzez lasterrago egin liteke beraz. Bestelako abantailetan, erneago agertzen dela konektioa interneten erabiltzaile multzoa izanik ere. Etxe berean elgarrekin lotzea interneti konektioaren kalitate maila gorena atxikiz. Bakan gertatu behar lukete konektioa moteltzek.

Nola egin zuntz optikoa etxerat biltzeko ? Lehenik ikusi zuen etxea hautagarri ezarria izan denez, eta hortarako www.lafibre64.fr gunean sartu, « obrak zuzenean » klikatuz, agertuko zaizue aintzin karta. Zuen norabide zehatza emanez, edo beharrez kartan behatuz nun den zuen etxea, puntu bat agertuko da zuen egoitzaren gainean, eta berdea bada, lotgarria da zuen bizitegia zuntz optikoari. Klikatu puntu berdean eta segurtza zazue agertzen den posta norabidea zuena dela. Hori horrela izanez, deitu zuek hautatuko duzuen enpresa internet zuntz optika harpidetza baten ardiesteko. Gainerakoaz arduratuko dira.

Zuen etxeak ez balu puntu berderik agertzen, edo posta norabidea okerra balitz, harremanetan sar zaitzete Herriko Etxearekin, hemendik arduratuko gira SFR zuntz optikoaren hedatzaileari idatzizko gutunaren igortzeko bakarka iker ditzaten ongi ez doazen kasuak.

Herriko Etxea zuntz optikoari hautagarri direnez jakin nahi duten herritarren laguntzeko gai da, behar orduan hurbil zaitzekete.

TxikTxak garraioak / Se déplacer en transport en commun

Le Proxi'Bus (ligne 59)

Une navette accessible du lundi au samedi de 07h30 à 19h30 circule à ITXASSOU de la « ZA Errobi – Alzuyeta » au « Fronton d'Itsasu », via Ordokia et la Mairie, en desservant le centre-ville de Cambo-les-Bains et notamment sa gare routière.

A noter que cette ligne a été lancée en 2020 à titre expérimental pour 2 années. Son maintien et son renforcement dépendront de la mobilisation des usagers et de notre capacité à changer nos habitudes.

Le Car'Express (Lignes 14 et 15)

Depuis Cambo-Les-Bains, il donne la possibilité de rejoindre :

- 7/7 jours : Espelette, Bayonne et les communes sur le trajet
- Du lundi au samedi : Hasparren, Bonloc, Mendionde, Helette, Irissarry et Iholdy

Hegobus (ligne 49)

Cette ligne démarre de Cambo-Les-Bains pour rejoindre Saint-Jean-de-Luz en passant par Espelette, Souraïde, Saint-Pée-sur-Nivelle et Ascain.

Le train

Pour rejoindre Bayonne ou Saint-Jean-Pied-de-Port sans embouteillage : 16 trains par jour « Cambo-les-Bains ↔ Bayonne » en 35 min

Aide financière – Rappel

Le Syndicat des Mobilités Pays Basque-Adour verse une subvention de 150€ à 500€ pour l'achat d'un vélo à assistance électrique.

RDV sur : www.velo-paysbasque.fr

Plus économique et plus écologique, le transport en commun une vraie alternative à la voiture individuelle

Tarifs, abonnements et renseignements : 05.59.44.77.77 ou www.txiktxak.fr

Proiektu handia / Grand projet

Irigoinbeherea / Centre La Nive

2020ko udan bilkura publiko bat antolatua izan da Sanoki gelan Nouveau Regard elkartearen ganik. Prentsako artikuluen bidez hobeki argitua izan da elkarteak Irigoinehanean zabaldu nahi duen proiektua. Autismoa jasaiten dutenentzat liteke, eskola berezitu batekin haurrentzat, eta helduentzat bizigune batekin, batzuentzat denbora osokoa eta bestentzat egun pasakoa.

Komunikabidetako kanpanak esperantza ainitz sortu du bereziki gaitzak etxean jasaiten duten familientzat. Zoritxarrez, artagune horren ideiak laster aitzinatu badu gogoetan, 2021eko otsailean antolatua izanen da lehen mahain ingurua. Bilkura batean biltzekoak dira besteak beste Departamenduko osasun arduradunak, Eskualdeko osasun ordezkariek, Hezkuntza Nazionalekoak, Hiri Elkargokoak eta Itsasuko Herriko Etxekoak.



Itsasuko hautetsiek badakite Nouveau Regard elkarteak eramaiten duen gaia zoin minbera den. Proiektuaren handitasunaz ohartuak dira, eta baitezpadako mahain inguru horren beha daude, hortik aterako diren baimen eta dirubideak baitezpadakoak baitira.

A l'été 2020, une réunion publique a été organisée à la salle Sanoki par l'association « Un Nouveau Regard ». Des communications dans la presse locale ont précisé le projet de l'association sur l'ancienne maison de convalescence de La Nive- Irigoinehenea. Il s'agit précisément d'un projet d'école spécialisée, hébergement et centre de jour pour adultes, à destination des personnes affectées par les troubles de l'autisme.

La campagne de communication a suscité beaucoup d'espoir auprès des familles qui ont à porter au quotidien des proches atteints par ce handicap. Cependant, si l'idée d'ouvrir ce centre avait rapidement cheminé dans les esprits, le premier tour de table est annoncé pour début février 2021. L'association « Un Nouveau Regard » a prévu de réunir l'ensemble des partenaires incontournables dans un tel projet : les responsables du Département, de l'Agence Régionale de Santé, de l'Education Nationale, de la Communauté d'agglomération Pays Basque et de la mairie d'Itsasu. La Commune d'Itsasu, bien qu'attentive au projet de l'association « Un Nouveau Regard », et consciente de l'ampleur du projet, reste en attente de ce rendez-vous déterminant qui pourrait déléguer les validations et les moyens.

Le militant navarrais, Mikel BARRIOS

Lerro hauk argitaratzen ditugunean, Mikel Barrios militante gazte nafarrak segitzen du Itsasun bizitzen eta Baigorri lan egiten. Azken urte huntako ibilbidea laburbildu behar balitz :

- 2020ko ekainaren 28an Mont de Marsan eko presondegirat sartu behar izan zuen. Handik egun batzuetarat, 2020ko uztailearen 4ean, 900 bat lagun biltzen zituen manifestapen bat izan zen Itsasun, Mikelen libratzearen alde.
- Agorriaren 24ean ezeztatu zioten libre Mont de Marsan etik libro ateratzea, arrisku sobera ba omen zelakotz ez zedin auzirat agert.
- Azaroaren 7an libratzen zuten Mont de Marsan etik esku muturreko elektronikorik gabe.
- Abendoaren 12an auzitegiaren aintzinean aurkezten zen Mikel Barrios Parisen. Lekuko bezala bazituen aldean Jean René Etchegaray (Euskal hirigune elkargoa lehendakari) eta Jean Pierre Massias (... hauek ere luze zabalean esplikatzen zuten auzitegiari euskal militante hunek frogatua zuela bizi normala eramaiten zuela Ipar Euskal Herri huntan eta garaia ez zela preso ezartzeari baina presoak hurbiltzeari eta libratzeari, bakearen bidetik.

Urtarrilaren 7an jakin da auzitegiaren erabakia, hotz hotza : 5 urte presondegi eta Fijait fitxategian ezarria izaitea.

Guk Itsasuko Herriko Etxetik argi eta garbi agertu dugu Mikel Barrios ek bere herria duela Itsasu, hemen bizi denez, eta lehiatuko gira segi dezan gure artean bizitzen eta lan egiten.

En plein de processus de paix, le 07 janvier 2021, la sentence de la cour d'appel de Paris, à l'encontre de Mikel Barrios : 5 ans de prison et fichage au Fijait.

A l'heure où nous écrivons ces lignes, le jeune militant navarrais Mikel Barrios réside bien à Itsasu et travaille pour une entreprise de Baigorri.

Bref retour sur l'année écoulée :

- 28 juin 2020 : Mikel est incarcéré à la prison de Mont de Marsan. Quelques jours plus tard, le 4 juillet 2020, une manifestation en soutien au militant politique rassemble 900 personnes sur Itsasu pour revendiquer sa libération.
- Le 24 août 2020, refus de mise en liberté conditionnelle, sous prétexte que cette libération ne garantirait pas que le militant comparaisse devant la cour d'appel.
- Début novembre 2020, décision de libérer Mikel, sous contrôle judiciaire, sans bracelet électronique.
- 12 décembre 2020, comparution de Mikel devant la cour d'appel de Paris, en présence des témoins Jean René Etchegaray et Jean Pierre Massias, qui s'efforçaient d'expliquer que ce militant était parfaitement intégré dans son milieu de vie, et que la période actuelle était ici à rapprocher et libérer les prisonniers basques, et non à les incarcérer.

La mairie d'Itsasu s'est engagée à confirmer que Mikel a toute légitimité à vivre à Itsasu, et continuera à favoriser son implication dans notre village.



La Bibliothèque municipale

La crise sanitaire a impacté le fonctionnement de la bibliothèque municipale dont les locaux ont été fermés au public de longs mois en 2020. Les lecteurs ont néanmoins pu réserver des ouvrages en consultant le fonds en ligne sur le site www.bibliotheque-itsasu.fr et en procédant aux réservations par mail à l'adresse : biblio@itxassou.fr

Ce fonctionnement se poursuit avec toutefois en ce début d'année 2021 la **possibilité de revenir sur site** :

- le mardi après-midi de 14h30 à 18h00 en présence de Camille
- et à compter du mois de février le mercredi, sur la journée, avec un accueil assuré par Aintza.

Nous profitons de cette publication pour vous informer du départ à la retraite de **Martine DURAND**.

Martine assurait les permanences du mercredi ces dernières années à la bibliothèque mais sa principale activité se concentrait depuis plus de 30 ans auprès des enfants de nos écoles.

Plusieurs générations d'élèves ont connu Martine d'une part à l'Ecole Publique, où elle était Agent Spécialisée des Ecoles Maternelles, mais également à la garderie scolaire.

Professionnelle reconnue, appréciée de tous, il n'a toutefois pas été possible dans le contexte sanitaire actuel de lui manifester officiellement les remerciements de la collectivité. Dans l'attente de l'organisation d'une rencontre conviviale, bonne retraite Martine !



Liburutegia

Herriko Etxeko liburutegiaren ibilmoldea tratatua izan da 2020ko ilabete luzez Covid krisialdiaren gatik. Irakurlek hartu ahal izan dituzte nahi zituzten liburuak internet bidez www.bibliotheque-itsasu.fr gunean sartuz eta liburu erreserbak eginez mezutegi huntan : biblio@itxassou.fr

Jarraitzen dugu internet ibilmolde hori 2021 urte hastapen huntan, eta jakinarazten dugu idekitzen dugula liburutegia :

- astearte aratsaldetan 14,30etarik 18 tarat Camillen arduraren
- eta otsailatik goiti, astezkenetan, egun osoan Aintza-rekin.

Baliatzen gira argitalpen huntan, jakinerazteko Martine DURAND erretretarat joan zaigula.

Martinek atxikitzen zuen liburutegia asteazkenez azken urte hauetan. Itsasuko haur belaunaldi askok ezagutu du Martine eskola publikoan, ama eskolakoekin eta haurtzaindegian egiten baitzuen bere lan denbora gehiena.

Dakigun osasun krisi egoera berezia gatik, ez zaio Martine Durand-i eskaini mereziko zuen eskerrik herritar eta Herriko Etxearen ganik. Laster elgarrekilako giro gozoan ospatzeko menturaren, erretreta on Martine.

Haur ttipiak / Petite enfance



Lekuonean haurtzaindegiak baditu 64 Departamenduaren baimenak egunean 25 haur onartzeko, aldebateko ala noiz-behinkako kontratuekin (astean 40 haur).

Idekia da astelehenetik ostiralerat, 7,30etarik 18,30etarat. Elebidun labela badauka eta ardura berezia agertzen du haurren janariarentzat (2020an elikadura biologikoa %50), baita ere ingumenaren axola konduan hartzen du.

Lekuonean haurtzaindegiaren kudeaketa elkarte moduan egina da, bolondresak dira administrazio kontseiluan, izan daitezke burraso ala ez, eta hauek dute bereziki haurtzaindegiko hamar bat langileen kudeaketaren ardura.

Elkarteak bilatzen ditu garai hauetan ardura horietarako bolondres berriak. Hautagaitzak helaraz Anne Marie Aguerre elkartearen lehendakariari 06 71 61 29 12.

Gelditzen dira lekuak noizbehinkako haurtzaintzarako, bereziki 18 ilabetez gorako haurrentzat, asteen egun bat edo biga. Kontaktoan jar zaitezke Marina Errecart zuzendariarekin 06 59 08 60 19, beharrrorduak izanez geroz.

La crèche Lekuonean est agréée par le Conseil Départemental 64 pour l'accueil de 25 enfants par jour sur des contrats réguliers ou occasionnels (près de 40 enfants à la semaine). Ouverte du lundi au vendredi de 7h30 à 18h30, elle est labellisée bilingue et une attention particulière est apportée à l'alimentation des enfants (50% de Bio en 2020) et à la démarche environnementale.

Le projet pour 2021 est de former l'équipe à la communication gestuelle associée à la parole puis d'associer les parents à la démarche.

La gestion de la crèche est associative, ce sont des bénévoles - parents ou extérieurs- élus au conseil d'administration qui ont la responsabilité notamment de la fonction employeur d'une dizaine de salariés. L'association recherche à l'heure actuelle de nouveaux bénévoles. Vous pouvez contacter Anne Marie Aguerre, présidente de l'association au 06.71.61.29.12.

Il reste des places en accueil occasionnel (accueil sur des jours différents, 1 à 2j par semaine) notamment pour des enfants de plus de 18 mois. Vous pouvez contacter la directrice Marina Errecart au 05.59.08.60.19 si vous êtes intéressés.

Zoom sur la salle Gaztetxea

Gaztetxea, Atarriko antzerki gela, ixtorio luze bat naski ?

Itsasuarrak 1901 legearen araberako elkarte bat da, 1952ko abendoaren 10 ean sortua. Orduan jabetzen da Elkartea Atarriko zelaiak. Ezker pareta 1954an eraikia izan da, ondotik Gaztetxea gela, sukaldeak eta azkenik Ataitze dantza gela. Hastapenetik gela guziak herritarren auzo lanez artatuak izan dira.

Bost sail ditu Itsasuarrak kultur eta kirol elkarteak : pilota, dantza, jimaiztika, bizikleta eta gerezi besteren antolaketak. Beraz gelak elkarte sail horien esku dira, baita hiru eskoletako elkarte edo kirol beharorduentzat, baizik eta Menditarrak herriko besta komitearen esku.

Gaztetxea baliatu da antzerki, ikusgarri eta zinema gela bezala. Geroago Itsasuko klikakoek dute baliatu trebatze saioetarako. 2012 an gela barneari berrialdi bat eman zaio, baina soinu oihartzun txarra izanez, erabili da gehienik besta behar orduetarako.

Berritu duzue Gaztetxeko teilatua udazken huntan ?

Teila zahartua zen eta ikusirik itaxura asko bazela, iduritu zaigu lehen bait lehen hegatzatza berritu behar zela, barneari kalterik egin ez zezan.

Gaitzeko auzo lan oldarrari esker, ofiziokoak barne, eta herriko etxearen diru laguntzari esker materialaren erosteko, udazkeneko bi larunbatez berritu dugu teilatu guzia, hogoita hamar lagunei esker.

Departamenduak eskaini duen buxeta parte hartzailean agertu duzue Gaztetxearen berritzea ?

Alafe, teilatua berritu ondoan, nahi ginuke gela barneko obra bururatu, erabilgarria izan dadin kultur gertakarietarako. Haatik, nola ez dugun ekitaldirik antolatu urte guzian, diru laguntza behar dugu hobekuntzak jarraitzeko. Horretarako gira sartu departamenduak proposatzen zuen lehian. Zoritxarrez, ez da lehenetan agertzen diru laguntza horren eskuratzeko.

Noiz uste duzue abiatzea Gaztetxeko gela horren egokitzea ?

Garai hauetako egoera ikusiz, ezinezkoa dela diru sartzea ekarriko lukeen gertakari arruntena antolatzea, ezin erran oraingoz noiz. Segituko dugu proiektua lantzen, hobekienik eta zehatzenik finkatzeko gastuak eta diru iturriak. Dirustatzeko moldea bermatuko dugun ordutik obra horri eginen ditugu lehentasunez.

Zuek Itsasuarrak elkartekoak prest zintezkete Gaztetxeako ateak zabaltzerat elkarteko gertakarietarik haratago ?

Dudarik gabe, heltzen bagira Gaztetxea gelaren proiektua bururaino eramaiten badugu, kultur gertakarietarako ongi egokitzen badugu (ikusgarri, antzerki, kantaldi...). Elkarrekin nahiko du ahal den hobekienik baliatua izan dadin beste ekitaldiei zabalduz.



Gaztetxea la salle de théâtre d'Atharri, une longue histoire ?

Itsasuarrak est une association loi 1901 créée le 10 Décembre 1952. L'association est alors propriétaire du site Atharri. Le mur à gauche a été construit en 1954, suivi de la salle Gaztetxea, des cuisines et de la salle de danse. Depuis l'origine, tous les bâtiments sont entretenus grâce au bénévolat des villageois.

Cette association culturelle et sportive est répartie en 5 sections : la pelote, la danse, la gym, le cyclo et l'organisation de la fête des cerises. Les locaux sont donc mis à disposition de ces sections mais également des 3 écoles du village pour divers rassemblements ou utilisations sportives, ainsi que pour le comité des fêtes.

La salle Gaztetxea a d'abord été utilisée en salle de théâtre, spectacle et cinéma. Elle a ensuite été utilisée par la batterie fanfare pour ses répétitions. En 2012 l'intérieur a été rafraîchi mais compte tenu des problèmes d'acoustique elle a surtout été utilisée pour des rassemblements festifs.

Vous avez rénové la toiture de gaztetxea ?

La tuile étant en fin de vie, et après avoir constaté de nombreuses fuites il nous a paru urgent de la rénover avant que l'intérieur ne soit trop délabré.

Grâce à un très bel élan de bénévolat incluant des professionnels Itsasuar et avec une aide financière de la municipalité pour l'achat du matériel, la toiture a été complètement refaite en deux samedis d'octobre avec une belle équipe d'une trentaine de bénévoles.

Vous aviez inscrit Gaztetxea comme action au budget participatif du Département 64 ?

En effet, après avoir refait la toiture, nous souhaitons réhabiliter la salle et lui donner une destination culturelle. Cependant, n'ayant pas pu organiser d'événement durant toute l'année, nous avons besoin d'une aide financière pour pouvoir poursuivre les travaux. C'est pourquoi nous avons participé au budget participatif notre projet rentrant dans les critères d'aide du département. Malheureusement, notre projet n'a pas été retenu parmi ceux qui seront subventionnés.

A quelle échéance doit-on imaginer le début du renouveau de cette salle gaztetxea ?

Etant donné la conjoncture et l'impossibilité d'organiser des événements permettant le financement des travaux, nous ne pouvons nous prononcer sur une échéance. Nous allons poursuivre l'étude du projet afin de bien le budgétiser au plus juste et dès qu'une solution financière sera trouvée nous mettrons ces travaux en priorité.

Vous Itsasuarrak seriez prêts à ouvrir l'animation de Gaztetxea au-delà des activités traditionnelles de l'association ?

Evidemment, et si nous parvenons à aller au bout du projet de réhabilitation, cette salle à vocation culturelle (spectacle, théâtre, kantaldi...), s'ouvrirait à d'autres événements pour une utilisation optimale.

Ur tipula

Ur Tipula Itsasuko kaiak elkarte da. Baditu berrogoi bat kide, 9 urtetarik 61urteak artekoak. Bi zatitan banatua da : lehiaketarako saila eta atseginerako saila.

Ur tipulak elkarteak antolatzen ditu ohituki kirol ateraldiak eta ateraldi gozoak. Hemen gairako gazteen trebatzeko muntatua du ur putzu gune egokia. Egonaldiak ere antolatzen ditu kaiak kirolean trebe diren eta ez direnentzat. Zenbait urte hautan badira harremanak Gipuzkoako kaiak taldeekin.

Elbarrituak onartzen ditu urtero Ur Tipulak, kaiak kirol edo jokoa prezia dezaten. Bestalde elkarteak arduratzen da Errobi eta beste erreken garbitzeaz.

Elkarteko hiru gazte selekzionatuak izan ziren 2020ko Frantziako txapelketarako : Nahia Oteiza, Edgar Paleau-Brasseur eta Antton Erdois. Hiru medaila ekarri zituzten, bat brontzezkoa eta bi zilarrezkoak. Ur Tipula 17garren sailkatzen da Frantziako 210 taldeetan.

2021ko irailean, Ur Tipulak antolatzen du canoe kaiak slalom lehiaketa bat Itsasuko Errobi kaiak gunean. Elgarretaratuko dira Frantzia eta Euskal Herri hegoaldetik kaiak elkarte frango, ehun bat herrialde bakotzetik.

Trebatzeko egonaldi multzoa antolatua izanen da kaiak elkartearen artean eta gure gazte parte hartuko dute Euskadiko lehiaketan.

Aupa putilak eta neskatilak



Ur tipula est un club de kayak situé à itsasu qui regroupe une quarantaine de membres de 9 à 61 ans, scindé en 2 parties : une section « loisir » et une section « compétition ».

Il organise régulièrement des sorties conviviales et sportives, et a mis en place un bassin d'entraînement qui sert à initier les jeunes de la région. Des séjours sont également organisés pour les kayakistes confirmés ou pas. Un échange régulier avec des clubs de Gipuzkoa existe aussi depuis plusieurs années.

Chaque année Ur Tipula accueille des personnes en situation de handicap, pour une découverte de la pratique du kayak. L'association participe également au nettoyage de la Nive et d'autres cours d'eau.

Trois jeunes (2 cadets et 1 junior) du club ont été sélectionnés pour les championnats de France 2020. **Nahia Oteiza, Edgar Paleau-Brasseur et Antton Erdois** ont remporté 3 médailles de cette compétition (une de bronze et deux d'argent). Ces résultats classent le club 17^{ième} sur 210.

Ur Tipula organisera en septembre 2021 une compétition de slalom en canoë et kayak au niveau du barrage d'Itsasu. Cette manifestation regroupera un grand nombre de club de tout le sud de la France ainsi que d'Hegoalde (200 bateaux français, 100 basque). Plusieurs stages seront organisés entre les clubs, et nos champions participeront aux prochaines compétitions qui compteront pour la coupe d'Euskadi.

A bien'teau

Azken orduko berria / Actu de dernière minute

XERTO ZENTROAK COVID-19 CENTRES DE VACCINATION

Infos et RDV sur le site www.sante.fr ou en appelant directement les centres

ANGLET : 08 00 80 09 28

BAYONNE (Centre Hospitalier) : 05 59 44 35 35

BAYONNE (Maison des Associations) : 05 47 75 68 37

BIARRITZ (Casino Municipal) : 08 00 72 60 64

SAINT-JEAN-DE-LUZ : 05 59 51 61 99

SAINT-JEAN-PIED-DE-PORT : 05 59 37 99 75

SAINT-PALAIS : 05 47 73 90 72

Cette liste est susceptible d'évoluer au fur et à mesure de l'ouverture de nouveaux centres.

Besoin d'aide pour prendre un rendez-vous ?

Composez le n° vert national

0800 009 110

(tous les jours de 6h à 22h)

En savoir plus ?

<https://solidarites-sante.gouv.fr/grands-dossiers/la-vaccination-contre-la-covid-19/>



CCAS-ak obratu ditu zenbait ekintza gure gazte eta adinetakoei buruz.

Egunaldiak antolatuak izan dira haurrentzat udazkeneko bakantza denboran : Bidarraiko Arteka-koekin kanpo eta

ur jokoetan ; Sarde Sardexka-koekin janariaren gustuari buruz; Nico'o-kin, Tahitiko dantza eta musikaz.

Urtero bezala, herriko adinetakoei eskaini zaie eguberri-tako ikusaria. 80 urtez gorako 127 itsasuarrei eskurat emana izan zaie oparixoa, beren etxean ala xahar etxean egon.

Itsasuko CCAS/ LSHZ ak sustengatu du baitaere elkartasunaren takzi proiektua departamenduaren buxeta parte hartzailean. Helburua liteke bakarrik bizi diren herritarren laguntzea beharren arabera takzi zerbitzu bat eskainiz, haien hurbiltzeko autobus abiagune, hurbileko saltegi ala zerbitzuetarik. « Loturak mendi Leader » lehiaketan ere aurkeztua izan da takzi proiektu hau, eta 5000 euroko diru laguntza ardietsi du.

Ondoko hilabetako ekintzak

Osasun eta ekonomia krisialdiari buru egiteko asmoz, irabazien arabera diru laguntzak eskainiko zaizkie herriko jantegian haurrak dauzkaten familiei. Hiru eskoletako familiek eskuratu dute beren etxerentzako neurri horien argitzeko gutuna.

CCAS / LSHZ gogoeta betean dago bakantza denboretan astialdi zentroaren antolatzeko. Proiektu ezberdinak aztergai dira astialdi zentroa, 2021 eko udan abiatzeko menturaz.

Le CCAS d'Ixassou a réalisé divers projets pour nos plus jeunes et nos aînés, des journées d'activités ont été organisées pour les enfants pendant les vacances d'automne en partenariat avec Arteka (parc aventure, Bidarai), Sardez Sardexka (ateliers autour du goût) et Nico'o (danses et musiques Tahitiennes).

Comme chaque année, nos aînés ont reçu leur colis de Noël, 127 ont pu être distribués au plus de 80 ans à leur domicile ou dans les EHPAD.

Le CCAS a soutenu également le projet de Taxi Solidaire auprès du « Budget Participatif 64 » organisé par le Conseil Général. L'objectif est d'organiser un service de taxi auprès des personnes isolées afin de les rapprocher des commerces, des bus et des services proposés au village. Ce projet a été également présenté à « Loturak leader montagne » et a été sélectionné. Une enveloppe de 5000 euros a été attribuée.

Les actions à venir...

Face au contexte sanitaire et économique actuel, une nouvelle tarification cantine s'appuyant sur le quotient familial, est à l'étude. Un courrier a été envoyé aux familles des 3 écoles afin de présenter les mesures à venir.

Le CCAS est en pleine réflexion sur la mise en place d'un ALSH (Accueil de loisirs). Plusieurs projets sont à l'étude pour une ouverture du centre idéalement à l'été 2021 au village.

L'équipe en profite pour vous souhaiter une très bonne année et reste disponible aux besoins de chacun et aux bonnes idées de tous !

Egoera berezia / Contexte particulier

Oraingo krisi egoera jasaiten duguna izanik, biltzeko eta ibiltzeko paradak murriztuak direlarik, bakotzak konprenituko du Itsasuko Herriko Etxeak aurten ez duela agiantza ekitaldirik antolatuko.

Beste urtez CCAS ekin batera eskaintzen zen adinetakoen bazkaria ere ez dela otsailean izanen.

Dans le contexte sanitaire actuel imposant des restrictions en termes de déplacements et de rassemblements, chacun comprendra aisément que la Commune ne puisse organiser de cérémonie de vœux pas plus que le traditionnel repas des aînés servi habituellement en février en co-organisation avec le CCAS.

Ingurumena / Environnement

Ez, belarra ez da zikina !

2017 urtarrilaren lehenaz geroztik, debekatuak dira belarren kontrako pozoinak Labbé deitzen den legez.

Beste herri guziak bezala, Itsasu-k lege hori bete behar du. Bi helburu nagusi ditu legeak :

• **herritarren arriskua mendentu pozoin horiei buruz, eta molde hortan hobetzen da bakotxaren ingurugiroa**

• **beste helburua da belarrari itzultzea bere tokia ingurumenean... baliatzen duen klorofilari esker, belarrak ekoizten du okzigenoa, baina bereziki bizileku bezala baliatzen dute insektu andana batek, hauk berak ondotik xori askoren hazkurri bilakatuko direlarik. Horrela lekuan jartzen da hazkurri katea.**

Departamenduko kontseiluak, bere errebideen mantenu lanetan, utzia du bide bazterren usu moztea, eginez pikaldi bat udaberrian goizik mamutxan hazteak eta ugaltzeak hasi aintzin. Bigarren pikaldia udazkenean eginen dute, ugalketa garaia bururatu ondoan.

Baitezpadakoa da ikuspegiz aldatzea belarrek estaltzen duten eremuez, gure etxe itzulietan, bidexka eta bide bazterretan. Utz dezagun belarra hazitzen edo loretan luzatzerat, bizi dadin.

Denbora eskasez, herriko langileak ez dira heltzen herriko soropila guziak 3 zentimetro azpitik mozturik atxikitzerat sasoin guzian, eta hainbat hobe bioaniztasunarentzat. Gure langilek zazpi eginahalak egiten dituzte Itsasuko herria atsegina eta erakargarria izan dadin. Belar moztea...



Non, l'herbe « ça ne fait pas sale » !

Depuis le premier janvier 2017, l'utilisation de produits phytosanitaires est interdite par la loi « Labbé ».

Comme toutes les autres communes, Itsasu s'est mise au diapason de ce texte. Cette loi a 2 objectifs principaux:

- tout d'abord diminuer l'exposition des habitants à des produits nocifs et ainsi améliorer notre cadre de vie de façon sensible.

- d'autre part, redonner sa place à l'herbe dans notre environnement.

Grâce à la chlorophylle qu'elle contient, l'herbe produit de l'oxygène mais elle sert surtout de biotope à une multitude d'insectes qui serviront de nourriture entre autres à des passereaux. Et ainsi une chaîne alimentaire se met en place...

Le conseil départemental 64, dans le cadre de l'entretien de ses routes, a cessé les coupes répétées des fossés en faisant une coupe au début du printemps avant le développement des populations d'insectes et la reproduction de la faune. La deuxième coupe intervient en automne après la fin de la reproduction.

Il est important que nous changions notre vision des parcelles herbacées qui nous environnent autour de chez nous, le long des chemins et des routes et même des rues. Laissons l'herbe monter en épi ou fleurir afin qu'elle vive.

Par manque de temps les services techniques de la commune n'ont pas la possibilité de maintenir tous les parterres herbacés de la commune à 3 cm de hauteur durant toute la saison de pousse et c'est tant mieux pour la biodiversité. Ils font tout de même l'impossible pour maintenir le village agréable et attrayant en assurant 3 à 4 tontes par an.

Non l'herbe qui pousse ça ne fait ni sale ni abandonné. Bien au contraire.....

Mendiko bideak / Nos routes de montagne

Baginakien aspalditik Ataitzetako bideak jasaiten zuela turista soberakinaren traba frango. Joan den udaberriaz geroztik, Gehasto eta Berandotzeko bideek dute ezagutzen mendiko ibiltarien uhaina, gehienak Kostalde ala Landes aldetik jina.

Oto aparkatzea jadanik eta aspalditik mugatua da Mundarrain eta Ezkandrai behean, baina gidari askok ez dute debeku horien axolarik.

Eta gehastoar eta berandotzarrak kezu gorrian dira, eskatuz legeak zorrozki beteak izan ditezten. Mirakuluzko aterabiderik ez da. Bizkitartean, aterabideak landu behar dira, batzu eta besten dretxoak eta betebeharrak uztartuz.

S'il est acquis que le Pas-de-Roland est une destination touristique qui lui vaut depuis longtemps un encombrement routier toujours plus important et excédant pour les autochtones, les routes communales de Gehasto et Berandotz subissent quant à elles la ruée des randonneurs et promeneurs de la Côte Basque et du Sud des Landes.

Le stationnement y est très réglementé depuis longtemps, en particulier au pied du Mondarrain et de l'Eskandrai ; pour autant beaucoup de visiteurs et usagers de nos espaces de montagne garent leurs véhicules en « contrebande ». Les habitants de Gehasto et Berandotz sont excédés et en appellent à une stricte application des réglementations.

Si l'on peut entendre l'agacement des uns et des autres, pour autant il serait illusoire de penser que régler les conflits d'usage et en particulier cette problématique se résumera au recours à des arrêtés municipaux et autres PV de gendarmerie. Il convient de trouver des outils pour la gestion d'un espace public dans le respect des droits et devoirs de tous et chacun.

Laborantza / Agriculture



Betizu behi klase berezi bat dugu, gizonek hezi ez dutena, eta etxetako behiak kudeatzen diren arau berdinekin kudea ezina. Frantzian ez da gure Betizuen pareko beste behi basa klaserik.

2016ko otsailaren 13an, lan talde bat antolatua izan da Ezpeleta, Ainhoa eta Itsasuko hautetsi, Mondarraineko hazleen ordezkari, ihiztari, marexal eta departamenduko zerbitzuen ordezkari, Akitaniako arrazen zaintzale eta EHLGko adituekin. Hautetsiek onartzen dute betizuak hemengo ondarearen osagailu direla, eta adierazten dute abere basa hauen zaintzeko gogoia kudeaketa plangintza berezi baten bidez.

Denbora berean, hautetsiak kezkatzen dira istripu ala arriskuez, eta beraz bidean ezartzen dute herriko etxe bakoetak deliberatzen ahal duela azken orduko kabala erahilketa.

Kabala hazleak arranguraten dira abere basa horiek hedatzen ahal luketen osasun arazoaz. Akitaniako Zaindegiak behartu ditu osasun azterketak, eta oraingotz denak negatiboak agertu dira.

Lan taldeak orekaren begiratzeari kasu egiten du etxe abereen eta behi basen artean.

Agertzen den helburua :

- hobetu abere kopuruen ezagutza 2021ean kondaketa bat eginez
- begia atxiki osasun aldeari ezagutu betizuen harat hunatak geolokalizatu
- zaindu abere kopuruen bizikortasuna
- betizu abere klasearen estatus juridikoa indartu

Betizu est une variété non domestique de l'espèce bovine qui ne peut être gérée selon les règles applicables aux bovins domestiques.

Il n'y a pas d'autre population sauvage en France comparable à nos Betizu.

Le 13 février 2016 un comité de pilotage (maires et élus des 3 communes, Itsasu, Ezpeleta, Ainhoa, représentants des éleveurs du Mondarrain, chasseurs, DDPP, CD64, Conservatoire des races d'Aquitaine, EHLG) a été créé.

Les élus reconnaissent que les betizu font partie du patrimoine local et affirment leur volonté de maintenir leur mode de vie sauvage actuel dans le cadre d'un plan de gestion.

En même temps, les élus s'inquiètent des risques de conflits ou d'accident et ont donc mis en place une procédure d'abattage d'urgence par arrêté municipal de la commune concernée.

Les éleveurs s'inquiètent des risques sanitaires de cette population sauvage. Des examens sanitaires ont été diligentés par le Conservatoire d'Aquitaine, qui se sont jusqu'à ce jour tous révélés négatifs.

Le comité veille à maintenir un équilibre entre les bovins domestiques et les betizu sauvages.

Objectifs affichés :

- Affiner la connaissance de la population par un comptage prévu en 2021.
- Maintenir la veille sanitaire.
- Connaître les mouvements des betizu par la géolocalisation.
- Assurer la viabilité de la population.
- Conforter le statut juridique de l'espèce.

Laborantza galdezketak / Enquête agricole

Laborari eta laborantza lur jabe guziek ukan dute betetzeko diagnostika inkesta bat, Hirigintza Plangintzak behartzen duena. Itzuliak izan diren 51 inkestek Itsasuko laborantzaren berri zehatza agertuko dute..

Emaiza horiek baliatuko dira baitaere laborantzako batzordearen lanen oinarri, bereziki etxaldearen segidari buruz lehiatzeko. Errezebitzen ditugu erregulariki Itsasun laborantzaren instalatu nahi duten hautagaiak, bereziki baratze gintzan arizan nahi dutenak. Hasi behar genituzke gogoetak adituekin, muntatzeko proiektu bat instalatu nahi dutenen eta etxaldeen arteko beharrak jantzeko.

Dans le cadre du diagnostic territorial imposé par le projet du PLU nous avons transmis à tous les agriculteurs du village une enquête à renseigner pour établir un état des lieux actualisé de l'activité agricole à Itsasu. Nous avons reçu 51 réponses qui nous permettront une photographie objective de l'activité agricole du village. Ces documents pourront servir de base à la commission agricole pour avoir une idée de l'avenir des exploitations par rapport à leur transmission. Nous recevons régulièrement des candidats à l'installation notamment en maraichage à Itsasu. Afin d'établir un projet cohérent qui permettra de mettre en lien les candidats, les possibilités de surfaces libérées et les besoins actuels des agriculteurs actifs, nous entamerons prochainement un travail avec des personnes ressources.

Laborantza / Agriculture

Oihanestatzea / Reboisement

Laborantza batzordeak nahi lituzke ikertu zer litezkeen oihanestatzeke ahalak Itsasun. Gillen Igoa itsasuar gaztearekin eginik izan da solas. CRPFeko oihan teknikalari bezala Sugarai Behorlegi Mendibe aldeko oihanestatze programaz arduratzen da Igoa. 2015 sortu zen SIC kooperatibaren langile da, enpresa hunen eskutik sortu da biomasaren baliatzeko lekuko sektorea, gure oihanetako energiaren baliatzeko.

Bilkura publiko bat antolatuko dugu aurten gai huni buruz.

La commission agricole souhaite explorer les pistes envisageables de reboisement dans la commune.

Une rencontre a été organisée en novembre avec Gillen Igoa ,jeune Itsasuar, technicien forestier au CRPF Nouvelle Aquitaine (centre régional de la production forestière) qui s'occupe du programme de reforestation de Sugarai. La coopérative sic créée en 2015 dont il est salarié, a permis la mise en place d'une filière locale de valorisation de la biomasse, énergie renouvelable de nos forêts. Nous organiserons cette année, une réunion publique sur ce sujet.

Mundarrainen kabala eremuen arauak / Règlement des estives du Mondarrain

Lanean hasi gira uztail hastapenetik mendiko kabala eremuen arauen idazten, 2020 hastapenean Itsasu, Ezpeleta eta Ainhoako kabala hazle eta hautetsiek abiatua zuten sailetik.

Guillaume Cavailhès EHLGko animatzaileak laguntzen gaitu bilkura antolakuntzan eta arauen idazketan. Itsasun herria bera da mendiko kabala eremuen kudeatzailea. Helburua liteke mendiaren erabiltzaile guzien arteko legediak bateratzea, zaintzeko eta sustatzeko mendiko hazkuntza.

Beren kabalekin Mundarraineko soropiletarat doatzinek beharko dituzte zaindu bortua baliatzen duten hazle guzien arauak (zenbat kabala mendian, alatzen den eremuaren zaintzea, zenbat denboraz kabalak mendian...)

Mendi eremuaren kudeatzaileak ere molde berean behar ditu bere eginkizunak bete (kabala eremu batzuen garbiaraztea, erabakiak eta arauak aplikaraztea, informazio panelak..)

2021ean bururatuko dugu lan sail hori, eta jadanik berdintsua abiatua dugu Bidarraikoekin, Artzamendiarentzat kabala eremuen arautzeko.

La commune est gestionnaire des estives à ITXASSOU et il importe de les réglementer.

Nous avons repris dès le mois de juillet l'écriture d'un règlement entamée en début d'année 2020 entre élus et utilisateurs des communes d'Itsasu, Ezpeleta et Ainhoa.

Guillaume Cavailhès, animateur à Laborantxa Ganbara nous aide dans l'animation et l'écriture de ce règlement. L'objectif est d'établir un règlement qui permette d'homogénéiser la réglementation pour les divers utilisateurs de la Montagne ainsi que de maintenir et renforcer l'activité pastorale.

En effet, les éleveurs qui montent avec leurs troupeaux pour transhumer dans ce massif seront tenus de respecter les règles liées aux obligations des transhumants (nombre de bêtes présentes, respect des zones pâturées, et temps de présence sur le massif ...).

De la même manière, le gestionnaire devra aussi respecter ses obligations (entretien de certaines zones de pâturages par girobroyage, application des sanctions prévues et encadrées par un accord, panneaux d'informations...).

En 2021, nous finaliserons ce travail et poursuivrons avec la commune de Bidarraï, l'écriture du règlement initié pour le Massif Artzamendi.



Homenaldiak / Hommage

Pierre IHAROUR (ITSASU 1926 – 2021)

Pierre Iharour zendu da 2021eko urtarrilaren 10ean

Itsasun sortua zen Pierre Iharour, Errobi auzoan, bere aita harginak eraikia zuen « Gure Xokoa » etxean. Hargin ofizioa hartuko zuen Pierre-k berak ere.

Ofiziale zintzo bezala eraman du bere hargin ibilbidea, zenbait hargin itsasuar langile ari direla haren kondu.


Itsasuko kontseiluko hautetsi egon ondoan, Jean Mendivil-en segida hartzen du auzapez bezala 1983-an, eta 2001-arte hiru hautetsaldi betetzen ditu.

Ezinago hobeki ezagutzen zuen Itsasuko herria, bere eremu, bide eta familiekin. Eta zakiena gogotik emaiten zuen gazteago ziren hautetsi ala herriko etxeko langilei.

Nahiz Pierre Iharour-i itxura hotz eta urruna kausituko zioten, gizon zuzena izan da. Duda gutiko gizon deliberatua izanagatik, bazekien jenden zerbitzuko agertzen, ukatu gabe nundik heldu zen eta gure hizkuntzari zuen atxikimendua. Bazuen arrailleriako alderdia ezpainetan irria bakan agerturik ere.

Gogorreraino zorrotza izan den bezala lantegiko gora beheretan, halaber agertu da Herriko eta Herri arteko kudeantzan.

Itsasuko kontseiluko bilkuran hautetsiek aipamen zintzo batez omendu dute ehortzia izan den egun hartan berean



Pierre IHAROUR est décédé le 10 janvier 2021.

Né à Itxassou, au quartier Errobi, dans la maison « Gure Xokoa » édifiée par son père, maçon de profession, il se destina lui-même à cette activité.

Professionnel reconnu il mena brillamment sa carrière d'entrepreneur en bâtiment, employant plusieurs générations d'itsasuar au sein de son entreprise.

Conseiller municipal d'Itsasu, il en devint le Maire en 1983 et cumula trois mandats jusqu'en 2001.

Il avait une grande connaissance de la Commune, de son histoire, de sa géographie et des familles. Il partagea du reste volontiers cette connaissance et notamment avec les plus jeunes au titre desquels les élus mais également les agents municipaux.

Sous des abords que certains qualifiaient de froids ou distants, c'était un homme droit. Déterminé et fier, il restait pour autant disponible et à l'écoute montrant son attachement à ses origines et sa langue. Il était également doté de beaucoup d'humour pour qui savait démasquer ce pince sans rire.

Exigeant et rigoureux il travailla pour la commune et le territoire intercommunal avec les mêmes convictions que celles qui nourrissaient sa vocation d'entrepreneur.

Un hommage lui a été rendu par les élus en fonction à l'occasion du Conseil Municipal qui s'est tenu le soir de ses obsèques.

Oposizioa / L'opposition

Itsasu Elgarrekin

Suite au deuxième tour des élections municipales du mois de Juin 2020, notre liste a obtenu un siège au conseil municipal, et notre équipe remercie les électeurs qui nous ont apporté leur soutien.

Seul représentant de la liste, j'occupe donc ce poste avec responsabilité et assiduité. Malgré cette faible représentativité, je considère que mon action ne doit pas se réduire à un rôle de témoin silencieux, résigné à ne pouvoir peser sur les actions et choix proposés. Ce premier semestre, s'est mise en place la nouvelle équipe municipale, et les diverses commissions constituées se sont réunies pour la plupart au moins une fois. Je suis inscrit et participe aux réunions de travail des commissions Urbanisme, Information, Environnement, Economie, Voirie-bâtiments. J'essaie d'être force de proposition, de faire vivre le débat en y apportant mes connaissances et mon expérience. La commission urbanisme travaille sur le Plan Local d'Urbanisme à un rythme soutenu. Les orientations débattues et qui seront retenues impacteront notre village et par conséquent les Itsasuar pour les dix prochaines années et même au-delà. L'alchimie entre les attentes des uns, l'intérêt collectif et son interprétation et les promesses faites, est un exercice délicat qui doit aussi être en adéquation avec les prescriptions des pouvoirs publics. L'équipe municipale doit rester au service et à l'écoute de tous et si besoin je le rappellerai.

Joanden ekainean, herriko bozetan gure taldeak leku bat ukan du kontseiluan. Ekiparen izenean nahi ditut hemen eskertu beren konfiantza eta botza eman daukuten herritarrak

Itsasu Elgarrekin taldearen izenean, botz arin bat eskaintzeko ukanikan ere, ez niz egongo bi besoak kurutzaturik bertzeen ekintzen begira, lekuko ixil bat bezala. Lehen sei hilabete hauetan, herriko kontseilu berria lanean hasi da, batzorde batzuek lekuan ezarritako gai desberdinen lantzeko. Ni, Urbanismo, Informazioa, Ekonomia, Ingurumena, Bide eta obrak batzordeetan sartu niz, nere ikusmoldea eta esperientzia denentzuzko emaitetako gogoarekin. Urbanismoa batzordean serioki hasi gira Herri Hiriguntza Planoaren lantzen. Batzuek eta bertzeentzat lur bizitza lekuen ukaitea, Herriaren zabaltzea geroari pentsatuz eta zainduz, Podere Publikoen gaiak eta legeak errespetatuz, horien guzieren bateratzea, lan dorpe eta zaila izanen da. Bainan Herriko etxeko ordezkariak buruan atxiki behar dute erantzukizunaren jabe direla eta denentzuteko eta zerbitzuko hori direla. Beharrez hori izanen niz orroitarazteko.

Louis Ustarroz

Ensemble pour l'avenir d'Ixassou – Elgarrekin Segi Aintzina

Chers Itsasuar,

Au nom de notre équipe, nous tenons à remercier les électeurs qui nous ont soutenus, pour ces élections si particulières dans une année si difficile. Avec 15 voix d'écart, la liste abertzale est arrivée en tête et se trouve majoritaire au Conseil Municipal. Dès le résultat prononcé, nous avons félicité et souhaité réussite aux vainqueurs. Nous avons exprimé dès le départ notre volonté de travailler avec eux et apporté nos voix aussi bien à l'élection du maire que celle des adjoints. Nous pensions ainsi, tout en défendant nos valeurs et nos convictions, travailler avec la nouvelle équipe pour le bien de la commune et de l'ensemble des Itsasuar. Malheureusement nous n'avons pas eu le même retour. En effet, la 1ère décision prise par la nouvelle majorité, sans aucun débat ni échange pour une liste qui prônait la concertation et la « démocratie participative », a été de mettre à l'arrêt le projet de la salle polyvalente et de la bibliothèque. Cet investissement déjà lancé par l'ancienne équipe, avec des études et des frais engagés, devait servir aussi bien aux 3 écoles qu'au futur projet du centre de loisirs (ALSH). Nous avons compris par la suite qu'elle souhaitait mettre ce terrain à la disposition de la Communauté d'Agglomération Pays Basque, pour l'agrandissement de l'kastola. Constats sur ces 6 premiers mois d'exercice :

- l'actuelle majorité propose au vote des décisions déjà prises ou des mesures déjà mises en place, elle garde sous silence des sujets qui apparemment la dérangent.

- 2 démissions parmi ses élus (?).

Nous voulons travailler avec elle et attendons des projets pour en débattre. Nous sommes minoritaires au niveau des élus mais représentons un nombre important d'Itsasuar. Nous devons être informés, consultés et écoutés. Pour conclure, nous vous formulons nos vœux de santé, bonheur et réussite.

Itsasuar maiteak,

Gure taldearen izenean, nahi ditugu lehenbizikori eskertu guri buruz beren sustengua ekarri daukuten bozkatzaileak, 2020eko hautes-kunde eta urte berezian. 15 bozen diferentziarekin, abertzale zerrenda lehen ateratu da eta orai gehiengoan herriko kontzeiluan. Emaitzak aldarrikatu bezen fite, irabazleak zoriondu ditugu eta lorpena desiratu talde berriari.

Hastapenetik adierazi dugu gure nahikeria elgarrekin lanean hartzea, gure bozak emanez bai auzapezaren, bai axuarentz bozkaketan.

Halaber uste ginuen, gure baloreak eta segurtamenak defendatuz, lanean elgarrekin lotzea talde berriarekin, herriaren eta Itsasuar guzieren onetan. Zorigaitzez, ez dugu itzulera bera ukan. Alabainan, gehiengo berriaren lehen erabakia izan da, eztabada eta solas bihi bat gabe, eta hori zerrenda demokratia parte hartzaile gisa, jardueraren anitzekoa eta liburutegi gela proiektua geldiaraztea.

Inbestitze hori, aintzineko tadeak jadanik abiatua zuen, ikasketa eta xahupenak engaiaturik, erabilgarri izan behar zena hiru eskoletako haurrentzat eta biharko Aisialdi Zentro (ALSH) berriarentzat. Ondotik konprenitu dugu CAPB buruz beiratzeko zutela lur erremu horri, ikastolaren handitzeko xedearekin. Sei ilabete hauetan egiaztatzen duguna, orainko gehiengoan den ekipak, bozkatzeraren emaitzen dituzten erabakia jadanik hartuak dira edo neurriak lekuratuak. Itzaltzen dituzte ere traba lotzen duten gaiak. Bertze ohar bat ere, 4 ilabete barne, 2 kargu uzte beren hautetsien lerroan. Asmoa dugu elgarrekin lanean lotzea, igurikatzen ditugu proiektuak eztabatzeko nahiarekin. Gutien goan izanik ere hautetsietan, Itsasuar korporu garrantzitsua ordezkatzeko dugu. Hortakotz nahi dugu jakinean izan, bai kontsultatuak eta entzunak ere. Lerro hauk bukatzean, gure zorionak adierazten dauzkizuegu, urostazun, lorpen eta osagarri on batekin.

« Elgarrekin Segi Aintzina » taldea

Les Services de la Mairie d'Ixassou

Services administratifs

Secrétariat général

Eliane JAUREGUIBERRY

Services à la Population

(Accueil, Etat Civil, Elections, Ecoles, Associations)

Pascale AMESTOY, Responsable
Camille ALZURI, Fabienne LARRONDE

CCAS

Pascale AMESTOY

Finances, R.H, Marchés publics, Cimetière, Gestion Patrimoine

Mirentxu IRIQUIN, Responsable
Camille ALZURI



Agriculture / Environnement

Pascale AMESTOY

Urbanisme

Eliane JAUREGUIBERRY
Fabienne LARRONDE

Communication, Tourisme, Culture

Fabienne LARRONDE
Camille ALZURI

Bibliothèque

Camille ALZURI



Services techniques

Voirie, Bâtiments, Espaces verts

Alfred SOUBELET, Responsable
Frantxo MACHICOTE
Jean-Claude AGUERRE
Alain JAUREGUIBERRY



Entretien locaux communaux

Maité URRUTY
Joëlle EZCURRA
Annie ETCHEVERRY
Marina St PAUL
Denise MACHICOTTE
Michelle ETCHEVERRY
Emmanuelle ERHLACHER

Services périscolaires

Cantine scolaire

Joëlle EZCURRA
Maité URRUTY
Brigitte BORDANEIL
Sophie LEIZA
Marina St PAUL
Denise MACHICOTTE
Michelle ETCHEVERRY
Emmanuelle ERHLACHER
Aintza ZUFIAURRE



Ecole publique - ATSEM

Annie ETCHEVERRY / Aintza ZUFIAURRE



Garderie scolaire

Annie ETCHEVERRY
Aintza ZUFIAURRE
Brigitte BORDANEIL
Joëlle EZCURRA
Michelle ETCHEVERRY
Emmanuelle ERHLACHER



Herriko etxeko ordutegiak

Mairie Heures d'ouverture

Lundi au jeudi

8h30 à 12h

13h30 à 16h30

Vendredi

8h30 à 12h

13h30 à 16h

Samedi

8h30 à 11h45

Informazioak praktikoak

Infos pratiques

Liburutegia / Bibliothèque

Horaires d'accueil du public

Mardi : 14h30 à 18h00 / Mercredi : Journée

www.bibliotheque-itsasu.fr

Cotisation annuelle : 8€ par famille

Tennis

Réservation en Mairie

Résidents Itxassou : Gratuit

Non-résidents Itxassou : 6€/ hre

Eskola publikoa / École Publique

05.59.29.75.51

Eskola San Josep / École St-Joseph

05.59.29.84.55

Arrokagarai Ikastola

05.59.59.35.22

Hurtzaindegia / Garderie scolaire

05.59.29.30.53

Kantina / Cantine scolaire

05.59.29.26.64

Crèche Lekuonean hurtzaindegia

05.59.08.60.19

Taxi zerbitzua / Service de Taxi

S'adresser à : M. Larronde

06.75.67.52.60

EGOERA ZIBILA / ETAT CIVIL

2020ko SORTZEAK / NAISSANCES

IBAR BERRIO Mikel; **CHOHOBIGARAT BANCE** Ozan; **WINTERSTEN** Sem, **VINCENT** Louise, Edmonde, Aline, **JAURETCHE** Peio, **SANTIAGO** Samuel, **URBIDE Y MAIGAIN** Ugaitz, **LARROQUE** Kaïli, Anastasia, **HARAMBOURE AMIGORENA** Unai, **IRUNGARAY LASCANO** Malli, **SAINT-PAUL** Laia, Laura, **AGUERRE GARBISU** Haize, **ELISSALDE** Iban, Pierre, **SETOAIN PUTS** Maïana, **GONÇALVES RIBEIRO** Diego, Joaquim, **MANGIN** Pablo, **GOMMÈS BARONNET** Louka, **ETCHART IBAR** Jone, **GARAT** Maddi, **LAFITTE NIO** Gabi, Gaëlle, Emmanuelle, **ISTILARTE LAGARDE** Eva, **ARRAMON AUDOUARD** Jone, Marie, Koyah, **DUBOIS** Thélyo, **CAZENAVE ILLABONA** Ilune, **MASSONDE** Gaïa, Samantha, Lisa, **PIERROT LARTEGUY** Ellande, Benat, Halim

2020ko EZKONTZAK / MARIAGES

RENARD Catherine, Florence, Claudine et **ALTRUY** Richard, Patrick, Emile

LAGAN Evelyne et **LASCARAY** Christophe

SAINT-PIERRE Anne, Maddalen et **DELATOUR** Guillaume, Fernand

ORSOL Béatrice et **SANGUINE** Christophe

PUTS Julie et **SETOAIN** Andoni

LE DEVEHAT Nina, Blandine, Claudie et **BOUDOIRE** Thomas

2020ko HERIOTZAK / DECES

SOUBELET veuve **LOYCE** Pascaline, **REBOUILH** épouse **IHAROUR** Yvette, **AGUERRE** Etienne, **CARBONETTO** Henri, Joseph, Jean-Baptiste, **MAGIS** Bernard, Sauveur, **ROBIDART** veuve **BARNETCHE** Marie-Anne, **CAZORLA** Jasmin, **CÉDARRY** veuve **AROTÇARENA** Gracie, **AGUERRE** épouse **EYHERABIDE** Joséphine, **LARROQUE** épouse **DARROZÈS** Yvette, Gabrielle, **COUSTILLAS** Patrice, Alain, **ELSO** Marie, **MATOT** Roland, Raymond, **SOUBELET** Pierre, **AGUERRE** veuve **BORDA** Marie-Thérèse, **AUCHOBERRY** Jean-Pierre, **MICHEL** Thierry, **BARADEL** veuve **TECHE** Régine, Berthe, Julie, **MEYROUS** Jean-Pierre, **RIFFLART** Claude, Louis, Lucien, **ELISSETCHE** veuve **CLOSSET** Léonie, Catherine, **VINAZZA** René, **LARRONDE** veuve **AGUERRE** Marie-Claire, **GNASSIA** Paul, Nathan

Herriko etxean egonen / Permanences :

Nicole ETXAMENDI Lundi / Astelehena 9h-10h

Michel SETOAIN Lundi / Astelehena 8h30-9h30

Mirentxu PARACHU ELISSALDE Lundi / Astelehena 14h30-15h30.

Emile HARISPOUROU Mercredi / Asteazkena 15h-16h

Maïalen OSPITAL Mercredi / Asteazkena 9h-10h

Et sur RDV eta Hitzordua hartuz

Itsasuko Herriko Etxea

Mairie d'Itxassou

05 59 29 75 36

Email : accueil@itxassou.fr

Site : www.itxassou.fr

Mise en page / Impression : Mairie d'Itxassou

Diseinua / Itsasuko Herriko etxean inprimatua